

Arrasate Komunikabideak Elkarteak, sorreratik urtebetera

ARRASATE ^{PRESS}

1992ko azaroak 6

169. zenb.



Aramaio
**Euskadiko
Gizon proba
Txapelketa**

Kirola mahainguruan

Etorkizuneko maldan

Artxubi

Gaurkuen Bergara aldera jokou, biherbada askok ez daue jakingo


baiñe etxe hau muga mugan egon arren Bergara aldetik geraketan da.

Bi bizitzako etxie dou, hemetikuen Martin Arregi eta Miren Ortubai bizi die, haindikuen berriz, Patrizio Aiastui eta Maxima Arriola-bengoa.

Etxiau ta Zeleta izengo die bide barrixekin desagertu dien bixek.

1909xen lehenauko etxe zaharra -oingue baiño goratxuau euen- eta lurrek Rafael Arizan Sagastietxeko (Etxezarreta) ugazabari saldu eutsien gaur bizi dienen aittejaun-amandriek.

Arizak 1919en gaur ikusten dan etxe barrixe jaso



euen, eta hona jatsi zien bizittera.

Urte asko ez dala ondion Martin eta Miren eta Patrizio eta Maximak etxie eureganatu daue berriro be.



LORAMENDI KIROLAK





LORAMENDI KIROLAKen dauzkagu
zure gustoko txamarrak,
forro polarrak, lumatxak, kanguroak...
Ski eta mendiko ekipoak eta osagarri guztiak!!
Maiatzaren 1a Plaza ARRASATE Tfnoa: 79 97 24



GATZAGAn

Ireki berria!!!

ZUHAITZ jatetxea**LORATEGI**
tabernaIturriotz, 7
Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE**Memesa**
79 42 22**ARRASATE**
PRESS
HARPIDETZAK

77 05 65
Aldizkari honek
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta
Turismo Sallaren laguntza jaso du

Nik bai

Nik ez dut Jainkoaren beharrik” zioen neska argi eta eder batek ATBen, denbora gutxi dela, erlijioa gai, sei gaztek eratu zuten ekinaldi txukun eta tajuzko batean. Bejon deizuela! Nire txaloa zuentzat, errespeto garbiaz eta eskatasun jatorrez egin baitzenuten elkarrizketa.

Orduan jasotakoak dira beste honako hauek ere:

“Nire gain ez dut inoren beharrik, ez dut nahi inoren aginterik. Nahikoa naiz ni nire bizitza antolatzeko eta jatortasunez, nire era bizitzeko”.

“Leikiena. Baina niretzat Jainkoa ez da nagusi bat, ez da oztopo, ez eta astasunaren murrizte; nire bizitza zentzuz bete eta askatasunez bizitzen laguntzen nauen laguna baizik”.

Bere arrazonomendu eta nahiaren nagusitasuna bakarrik onartzen zuen neskak eta Beste nor baten baitan murgildurik edo inguraturik bizi garela eta beste nor horrek baduela zer esanik gure bizitzan defendatzen zuten bi mutilek.

Komentario gisa, bijoakizue nire gogoeta: Gure ezagupidea eta jakinduriak abiada azkarra eta erakargarria darama. Pozgarria benetan. Baina oraindik haurzapitan gaudela ezin uka. Askoz handiagoa da ez dakiguna dakiguna baino.

Ezin zenbatu-


rikoa azaltzen zaigu Unibertsoa: mugagabea zabaleran, mugagabea sakontasunean, iker-gaitz edo ikerrezina bere zergatietan eta bere zentzuan. Zergatik ba ez ireki adimena eta izaera posibilitate guztietara? Zergatik mugatu bilaketa gure gaurko zientziera mugatuetara? Ni behintzat Unibertsoak berak bultzatzen nau mugagabeetara, infinitora; areago oraindik, eboluzioan pentsatzen dudanean. Izan ere, materia gero eta hobeto ari da organizatzen eta izaki berri aberatsagoak eta osoagoak sortzen. Noruntzaino? Non, noiz, nolakoa izango da hurrengo pausoa? Izpiritualizazioa? Eta hurrengo izakia? Jainkoaren antza duen norbait?

Beharbada, Jainkoa gizonek asmatu-rik hitza besterik ez dela esango didazu. Errespetatu daitekeen opinioa da, baina ahaztu gabe zientzilari askok ez dutela opinio hori

konpartitzen. Nik, Jainkoaren hipotesiari bilatzen diot logika eta arrazoibide. Eta batez ere, aske eta abenturero egiten nau. Ez nuke nahi, antzinako gizaki ezjakinek bezala, itsasoaren beste aldea ukatuz eta beldurrez, Huelvako er-tzean geratzerik, mundua han bukatzen delakoan.

Nik, Kolonen antze-
ra, barne esperientzia berrien itsasoa nahi dut ibili eta Ebanjelioaren abentura bizi. Beharbada, “Amerika” berri bat aurkituko dut, behar bada Jainkoa.

JOSE MARI ASTIGARRAGA
“SAGARRAGA”

**• ARRASATE PRESS •**


Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketaria:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Inguurigo Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maitte Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azalako argazkia: Jabier



ZENBAKI

Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39



ITURRIOTZ

**taberna
Girorik
jatorrena!**

Tfnoa: 79 16 04



**Alkoholarekin arazoak
dauzkazu?**

**Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!**

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

.....

**Jose Letona
enparantzaren
egoera
arduragabea**

Orain dela urtebete Jose Letona Enparantzan zorua, azpiko gara-jeetara erotzen ziren itukinak konpontzeko jaso zutenetik, horrela geratu dira baldosak, inolako konponketarik gabe eta gazte "harriz-jaurtiketa zale" batzuen eskuetan. (Bide batez, esan beharra dago itukinak oraindik ez direla konpondu).

Arazo hau Udaletxeari hamaika aldiz azaldu zaion arren, badirudi zerga-emaleen ahotsa gutxi entzuten dela herri honetan, egoera hau luzeegi irauten ari baita. Udaletxeari egingo niokeen galdera zera da: noiz arte?

Maite Argaña



.....

**Sarasua
Marokkon eta
Egaña
ezkontzan**

Bergarako *Jardun* Elkarteko Kultura Taldeko kideok ez dugu inondik-inora onartzen, Jon Sarasua eta Andoni Egaña bertsoari gurekin izan zuten jokabidea.

Hau salatze asmoz, gertatutakoa pausoz-pauso azaltzen saiatuko gara:

Ekainaren 17an A. Egaña eta Jon Sarasuak, urriaren 24erako antolatu nahi genuen bertso afarirako **baie-tza** eman ziguten.

Irailaren 11n, Bergaran izan zen bertso jaialdian urriaren 24ko bertso afarira etorriko zirela konfirmatu ziguten, hala ere, azkenengo astean ordua eta tokia zehazteko berriro deitzekotan gelditu ginen.

Urriaren 13an Sarasuari deitu genion eta honek: "Oporrak hartu behar ditut, eta Marokkora noa" esan zigun. (Hor konpon Mari Anton).

Urriaren 14ean Sarasuaren ordezkoa topatzen hasi ginenean bertso afarirako gauean, Egaña ezkontza zuela jakinarazi ziguten.

Urriaren 16an berari deitu eta "Trankil egon zaitetze, ni bertso afarira joango naiz eta" esan zigun.

Hu esan ondoren, Joxe Agirre (Jon Sarasuaren ordezkoa) eta Egañarekin aurrera segitzea pentsatzen dugu.

Hona hemen gure bigarren sorpresa, non urriaren 24ean, afari orduan, Joxe Agirre eta Martin Rezabal 'Olaso' agertu baitziren. Olasok esan zigunez, Egaña eguardian deitu zion, ezkontzara zihoala esanez eta bera ordezkatzeko eskatuz.

Jokabide honen aurrean, gure protesta azaldu nahi dugu, hori baino seriotasun gehiago izan behar dela iruditzen baitzaigu. Euskaldunok ez al gara hitzeko pertsonak? Batzuk, itxuraz, ez!!

Besterik gabe, Joxe Agirrerri, Olasori eta afarira etorri zirenei eskerrak eman nahi diegu.

**JARDUN ELKARTEKO
KULTUR TALDEA**

.....

Burutik jota

Burutik jota izeneko artikulua irakurri dut gaur *Deian*, Mikel Atxagak idatzita eta bertan esaten du Vascondagako Autonomiako Arartekoaren datak diñoela 200.000 euskaldun dagoela erotoasunak ikututa.

Egia ote hori? Ez dira izango "vascoac" eta ez euskaldunak? bereiztu izan balu garbiago ulertuko nuke denok ez direla edo garela euskaldunak. Ez duk egia Mikel? Uste diat ulertuko duala nondik nora doan ziria.

Agur.

"BUKATEL"

F A N C Y

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**

77 05 65

Arrasate gune turistikoa izan daitekela uste duzu?



**Miren Odriozola
Etxekoandrea (26 urte)**

Bai, nire ustez gauza politak dauzkagu eta ikustea merezi dutenak gainera. Nik dagoen bezala utziko nituzke gauzak, dagoenetan ondo dago.



**Juanito Arriaran
Dendaria (58 urte)**

Bai, bailarak gauza denak ditu onak: lan egiteko, gune turistikoa bezala eta dena. Jende jatorra gara eta nahi duenak badaki nora etorri.



**Anparo Navarro
Etxekoandrea (37 urte)**

Bai, oso gauza politak dauzkagu. Dagoen arazo bakarra klima da, bestela ondo dago.



**Patxi Colon
Laborategi arduraduna (60 urte)**

Bai, hortan ez dago dudarik, begi bistan dago gune turistikoa izan daitekeela. Suizako paisaiekin konpara daitezkeen paisaiek ditugu eta falta dena pizkanaka berriztu beharko da.




**Ildefonso Ares
Komertziala (32 urte)**

Gune turistikoa izan daiteke baina gauza asko aldatu beharko litzateke. Industria asko dago eta berde gune gutxi. Beraz nik berde guneak gehituko nituzke.



**Maite Oliber
Ikaslea (20 urte)**

Bai, izan daiteke baina gauza asko konpondu beharko lirateke.



**Jose Luis Rodriguez
Amaia Berriko
enpresaria (31 urte)**

Asko aldatu beharko litzateke. Zerbitzu mailan batez ere hutsune asko daude. Momentu honetan Arrasate ez dago turismorako prest.



**Rebeca Garcia
Ospitaleko langilea (30 urte)**

Bai, izan daiteke baina kaleko eta erreken garbitasuna eta beste gauza ekologikoak hobetu egin beharko dira.

LAURA

GAZTE MODA

Erdiko kale, 30
ARRASATE
Tfnoa: 79 57 20

Berango



**Sukalde-
altzariak,
mahaiak eta
aulkiak.**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g. Gipuzkoa Etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetzeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igoalatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbuistorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazki 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 6
 Egunez: S. Español, Iturrioz.
 Gauez: Estella, Matxiategi.

Larunbata 7
 Egunez: M. Corcuera, Musakola.
 Gauez: Mozos, Pedro Deunaren.

Igandea 8
 Egunez: J.A. Irizar, Erguin.
 Gauez: Mozos, Pedro Deunaren.

Astelehena 9
 Egunez: Amezua, Santa Marina.
 Gauez: Camacho, Oxirondo.

Asteartea 10
 Egunez: A.M. Morales, San Andres.
 Gauez: Guallar, San antonio.

Asteazkena 11
 Egunez: Alberto Azkoaga, Ferrerías.
 Gauez: Estella, Matxiategi.

Osteguna 12
 Egunez: M. Corcuera, Musakola.
 Gauez: Mozos, Pedro Deunaren.

6 OSTIRALA

ZINEA

"Instinto básico" (7,10)

AEDKO LEHIAKETAK

AEDko "Arrasate 92" eta "lokin Zaitegi" lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna.

HAUR ETA FAMILIA BOSNIARRI LAGUNTZEKO BILERA

Bosnioi laguntza luzatzeko bilera. 6.30etan Monterronen.

PINTURA ERAKUSKETA ITXI

Angel Galipienzoren erakusketaren azken eguna. Bigarren Arte Hamabostaldiaren katalogoaren aurkezpena. Arratsaldeko 7.30etan. Harresi Aretoan.

GIZON PROBAK

Gizon probak Aramaion. Gaueko 10etan. Herriko Plazan.

JAZZ KONTZERTUA

"ACME" taldearen jazz kontzertua. Elorrioko Kafe Ateneon. Gaueko 11etan.

AZARORAKO PROGRAMAZIOA

Udalak hilero hilero argitaratzen duen programaren arabera, azaroan zehar egongo da Arrasaten zer ikusi, ikasi, entzun eta praktikatu. Hitzaldiei dagokionez, Udako euskal unibertsitateak antolatzen dituen bi izango ditugu 10ean eta 17an. eta 27an Euskararen egoerari buruzko beste mahainguria ere izango dugu. Bestalde ostiral honetan Angel Galipienzoren erakusketa ixteak, German Amurrioren zeramika erakusketari emango dio hasiera. Eta 16tik aurrera, lumazko idazketa lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa Harresi Aretoan. Monterronen berriz, "Koadro baten zertzeladak" izeneko datarren asteazkenean hasiko da. Musikari dagokionez, 21ean Arrasate Musikalen 20. urteurrena ospatzen dela eta, kontzertua eskainiko dute Parrokian. Eta 28an Goikobaluren emanaldia ere izango duzue. Hauetaz gain, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak, AEDk, Yoga Elkarteak, IMI eta Kiroldagiko beste ekintzak ere hor izango dira.

7 LARUNBATA

ZINEA

"Instinto básico" (5,7.30,10)

ZERAMIKA ERAKUSKETA

German Amurrioren zeramika erakusketa Harresi Aretoan. 15ean itxiko da.

PAPER BILKETA

Orkatz Skaut taldearen paper bilketa. Goizeko 10etatik aurrera.

HIKA TRATAMENDUAREN IKASTAROA

Hikaren erabilpenaren ikastaroa hasiera. Arratsaldeko 4etatik 6etara.

ARAMAIOKO GANTZAGAN JAIK

Aramaioko Gantzagako jaien hasiera. Gaueko 9etan.

8 IGANDEA

ZINEA

"Instinto básico" (5,7.30, 10)

MENDI IRTEERA


Aumategi mendira irteera. Goizeko 8.45etan Aretxabale-tako Partenoitik.

GIZON PROBAK

Gizon probak Aramaion. Egur-diko 12.30etan eta arratsaldeko 6etan. Herriko Plazan.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Gimnasia erritmikoaren erakustaldia. Goizeko 12etan. Arrasateko Kiroldegian.



GIMNASIA ERRITMIKO ERAKUSTALDIA

Datorren igandean goizeko 12etan gimnasia erritmiko erakustaldia izango da. Bertan Arrasateko eta Oñatiko 85 gimnastak hartuko dute parte. Arrasateko Taldeak antolatu du.

9 ASTELEHENA**ZINEA**

"Instinto básico" (7,9.30)

LORE ZAINKETA

Lore zainketari buruzko hitzaldia. AEDn. Arratsaldeko 3.30etan. Emalea: Jakoba Rekondo.

'INSTINTO BASICO' ALAI ZINEMAN


Mikel Intxausti

Azkenik Arrasaten aurten ikus aurretiko morborik handiena sortu duen filmea. Homosexuak eta lesbianen haserrea dela, edota Michael Douglas-en ipurdia eta Sharon Stone-n hankabitarrea ikusteko

aukera... morboa, jaun andreak!

Eta ohi ez den bezala, montaje guzti horren atzean, pena merezi duen pelikula dago, thriller indartsua eta adrenalinikoa, bihotza kizkurtzen duten horietakoa.

Soberan zegoen morboa. Soberan dagoen bezala azken sekuentzian ohe azpikoa.

**10 ASTEARTEA****ZINEA**

"Instinto básico" (7,9.30)

EMAKUMEA ETA ENPLEGUA

Emakume eta enplegu ikastaroan izena emateko azken eguna. Astelehena hasiko dira klaseak.

ETXE APAINKETA IKASTAROA

Etxe apainketa ikastaroaren hasiera. Arratsaldeko 3.30etan. AEDn. Emalea: Xabier Arregi.

HERRI KOMUNIKABIDEAK. HITZALDIA

Herri komunikabideen gaineko hitzaldia Monterronen. Arratsaldeko 6etan. Joxe Aranzabalek emana.

IKASTEN ERAKUTSI IKASTAROA

Ikasten erakutsi ikastaroaren hasiera. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan. Arratsaldeko 7etan.

11 ASTEAZKENA**IKUSTEN IKASTEAK ERAKUSKETA**


Ikusten Ikasteak erakusketaren barruan, "Koadro baten zertzeladak" erakusketa. 30ean itxiko da.

BERGARAKO EUSKARA IKASTAROA

Bergarako euskararen ikastaroaren hasiera. UNEDen. 7etatik 9etara. Matrikula: 8.000 PTA.

ARGAZKIGINTZA IKASTAROA

Datorren azaroaren 16tik abenduaren 17ra bitartean, argazkigintzako sakontze mailako ikastaroa izango da. Astelehen eta ostegunetan izango dira klaseak, 7etatik 9etara. Matrikula 1.000 pezetakoa da plaza mugatuak dira. Informazio gehiago nahi izan ezker, Gazte Zerbitzuko 77 00 65 telefonora dei egin dezakezue.

**VI. ARGAZKI ETA DIAPOSITIBA LEHIAKETA**

Aretxabaletako Murruxio Mendizale Elkartek eta Amilotx Ekologi taldeak, VI. Argazki eta Diapositiba lehiaketa antolatatu dute. Euskadiko argazkizale guztiek har dezakete parte. Gai nagusia mendia eta natura arlo guztietan izango da eta aurkeztutako lanek inon saritu gabekoak izan behar dute. Abenduaren 10a baino lehen bidali behar dira eta abenduaren 18an banatuko dira sariak, ondoren erakusketa ere zabalduko delarik. Lehenak 20.000 PTA eta trofeoa eta bigarrenak 10.000 jasoko dituzte.

12 OSTEGUNA**ZINEA**

"Los últimos días del Edén" (7,9.30)

Rifi-Rafe**Arrasatearrak Rifi-Rafe ETB-2 saioan**

Osteguna hilak 12, gaueko 10etatik 11.30etara bitartean ETBko Rifi-Rafe saioan izango dira Jon Salaberri eta Domi Korta mondragoetarrak izango dira beste batzuen artea, HIESari buruz hitzegiten.

**OSKORRIEN JAIALDIA**

Datorren larunbatean, hilak 14an Oskorriren jaialdia izango da Eskoriatzako Frontoian. Gaueko 10.30etan izango den kontzertu honetara joateko sarrerak alde aurretik eros daitezke 1.000 pezetan Arrasateko Eresi, Hire eta Iratin eta beste herrietako hainbat tabernatan. Takilan 1.500 balioko dute. Axtroki euskararen aldeko elkarteak eta Eskoriatzako Udaleko Euskara batzordeak antolatzen du jaialdia.

“Aitarengandik datorkit musikarako zaletasuna. Berak ipini zidan niri bibolina eskuartearen. Ez dut gogoan zein egunetan izan zen, baina akordurik dudanetik jotzen dut bibolina.(...) Musiko ona izateko, lehenik eta behin belarri ona izan behar da. Gero artea izatea, artearekin zerikusirik duen edozer gauzarekin apasionatzea. Azkenik, musikarako sentsibilitate berezia izatea, gauza polit bat entzuten duzunean seigarren zentzu hori piztuta edukitzeko gaitasuna horrexek ematen du eta.

Albina Madinabeitia. Urria.



“Makina Erramintan epe laburreko arazoan presio handia jasaten ari diren arren, enpresa fabrikatzaileek etorkizunera begiratzen dute beti, hau frogatzen dutelarik martxan jartzen ari diren ekintzek, makina-erraminta clusterraren barruan egindako azterketen ondorioz. (...) Berriro ere bere dinamismoa erakusten ari da sektore hau, oraingoa bezalako kinka larrietan ere gai baita etorkizunaren aldeko apustua egiteko”.

Ikerlan boletina. Urria.



“Baserritarrak konturatzen dira, bai, ‘Maastricht’ dontsu hori ondo ezaguna dutela eta orain ezarri nahi diguten Europako Nekazal Politikaren Erreformak ‘Mas Triste’ besterik ez dituela jartzen. Agroalimentario multinazionalak gizentzen lagunduko duten batere logikarik gabeko prezio barregarri (edo negargarri) horien ondorioz ez dela baserritik bizitzerik izango eta nekazal lanpostuak galtzeak ondorio zuzenak izango dituela gure nekazal inguruan, lurraldean, produktuen kalitatean, estrategikoki ere bertakorik ez izatean, kultura eta nortasuna galtzean eta baita gure euskera maitearen ahultzean ere”.

Maite Aristegi. 1992-10-29.

Egunkaria

Zergatik gazteentzako antolatutako Mondragoeko hika ikastaroa?

Beno, inguruetako herrietatik Arrasatera etortzen direnek, hika hitzegiten dute euren artean eta gu konturatu ginen ez dugula egiten, ez dakigula hika hitzegiten. Mutilen artean, Arrasatekoak izanda ere, hika hitz egiten da, baina neskak ez dakigu, idearik ere ez daukagu. Taldeko batek ideia bota zuen, hika erabiltzen ikastea interesgarria izan zitekeela, eta ikastaroa antolatzea erabaki genuen.

Ikastaroa gazteentzat bakarrik antolatu dugu, 16 urtetik 25 urtera arteko gazteentzat, antolatzaileak ere gazteak gara eta, AEDko gazte-sailekoak. Gainera, pentsatu genuen norbaitentzat interesgarria izatekotan, gazteentzat izango zela. Ikastaroa 30 laguni zuzenduko zaio, printzipioz gazteei, baina gazteekin kopuru horretara iristen ez bagara, interesa duten helduagoei ere utziko diegu parte hartzen.

San Viatorren burutuko dugu ikastaroa eta ez kasualitatez, ikastola horretako arduradunek esan ziguten eurentzat ere interesgarria zela eta. Dirudienez, inguruetako herrietatik San Viatorrera etortzen diren gazteek hika hitzegiten dute eta Arrasatekoek ez; beraz, eurei ere interesatzen omen zaie. Ikastaroa larunbatetan izango da, arratsaldeko 4etatik 6etara.

Helduei zuzendutakorik egingo dugun edo ez, ez dakigu, aurrez ikusi egin behar honek duen harrera.



Iratxe Mujika
AEDko gazte saileko partaidea



Gazteentzako Mondraueko hika ikastaroa

16 eta 25 urte arteko gazteentzat zuzendua

Azaroko larunbatetan (7, 14, 21, 28)

Arratsaldeko 4etatik 6etara

San Viatorren

Irakaslea: Joseba Urkia

Matrikula 500 PTA

Antolatzailea: AEDko gazte saila Udaleko Euskara Batzordearen laguntzaz.

Informazio gehiagorako: 77 12 28 tfnoa.

Papera eta pilak jasotzeko kontenedoreak

Bailarako gainontzeko herrietan bezala, Arrasaten ere, papera eta pilak jasotzeko kontenedoreak jarri dituzte. Aipatutako kontenedoreetan biltzen den papera birziklatzera eramango da... Beraz, badirudi erakunde publikoetan zuhaitzak eta basoak babesteko lehen neurriak ematen ari direla, orain paper birziklatua erabiltzeko erabakiak hartu behar... bestela alperrik bildu eta birziklatuko da.

Kubatarren kontzertua arrakastatsua

Exaudi abesbatza kubatarrek joan den larunbatean San Frantzisko elizan eskainitako kontzertua, txalo-sorta ederra jaso zuen ikusleengandik. Jende ugari bildu zen frantziskotarrretan kubatarren aktuazioa ikusteko, jende heldua gehienbat. Kontzertua bi zatitan banatu zen, eta bigarrenak, folklore kantuz osatutakoak, izugarritzko harrera izan zuen. Labur esanda, maila handiko abesbatza San Frantzisko elizan izan zena, Tolosako Nazioarteko Abesbatz Lehiaketaren irabazlea gainera.

380 haur AEDren larunbateron

Pasa den larunbatean eman zitzaion hasiera AEDk antolatutako larunbatero ekintzari, aurten 31 taldetan



Ohitura zaharra nagusi Domusaindu egunean

Eguraldiak ez zuen Domusaindu egunean lagundu, baina hala eta guztiz ere jendeak ohitura betez, urteroko bisitaldia egin zuen kanposantura. Hortaz, Aldaiko kanposantua jende askoren topagune bihurtu zen. Hildakoak gogoratu, lorak eraman, joandakoei hitz egin, otoitz egin... dira jendeak Domusaindu egunez izaten dituen jarrerak. Udalak dituen asmoak betetzen badira, hurrengo Domusaindu eguna San Kristobalen burutuko da; hori bai, tokia aldatzeak ez du ohitura aldatzea lortuko.

banatutako 380 umek parte hartzen dute. Larunbatero ekintzak maiatzean bukatuko dira, eta astero San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastoletako geletan burutuko dira.

Izugarritzko euri piloa urrian

Inguru honetan eta garai honetan euria egitea gauza normalizat har daiteke, baina urrian izan diren eurijasek ez dute normaltasunarekin zerikusirik. Normalean, batzaz beste, metro karratuko 150 litro botatzen ditu hilero, baina urrian 512

litro bota ditu; hau da, urtean botatzen duenaren heren bat. Euri-jasak alde batera, esan behar tenperatura fresko samarra izan dela garai honetarako, 11'9 gradu batzaz beste.

Hainbat komunikabideetan esandakoaren arabera, pasa berri den urria azken hamarkadako hilabeterik euritsuena izan da. Hori gutxi balitz, azaroa ere antzera hasi da, ea aldatzen duen! asteburuetarako besterik ez bada.

Gurasoen topaketak

Udaleko Drogomenpe-

kotasunen Prebentzio Zerbitzuak eta Gurasoen Heziketarako Mahaiak antolatuta, Gurasoen arteko topaketak burutzen ari dira, 150 lagunengandik. Beraz, argi dago gurasoek prebentzio gaian badutela kezkarik eta baita ikasteko gogorik ere.

Hogei pertsona Santamainan sukaldaritzan ikasten

Santamainako Famili eta Gizarteko Heziketarako Zentruak antolatuta, joan den asteartean hasi zen zentruan bertan sukaldaritzan eta goxogintza ikastaroa. Guztira hogei lagunengandik hartzen dute parte ikastaro honetan, horietatik hiru gizonezkoak.

JAIOTZAK

- Leire Arregi Vicente. Urriaren 26an.
- Laura Agüero Conejo. 31n.

EZKONTZAK

- Inazio Urrutia Garaionandia & M^a Asunción García Kruzelaegi. Urriaren 31n.

HILDAKOAK

- Preciosa Barreiro Filgueira. Urriaren 28an. 81 urte.
- Juan Aranegi Alzola, 31n. 66 urte.
- Bernardina Gonzalez Castellanos. Azaroaren 1ean. 88 urte.
- Amos Martínez Mato, 1ean. 88 urte.
- Hipólito Urzelai Galdos, 1ean. 87 urte.
- Justo Moreno Jadraque, 1ean. 93 urte.
- Esperanza Dublan Castillejo, 2an. 90 urte.

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XATHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie


Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



IÑAKI JAUREGIALZO *

Ehizarik ez

Animalienganako maila goreneko tratu txar eta ankerkeriaren aurka dugun jarrera, espezie bizi guztien defentsarekin batera doa.

Animaliek beharrezko ez diren tratu txarrak, sufrimentuak eta utzikeria jasaten dute kasu askotan: zezenketak, sokamuturretako makilkadak, unxiiei harrika egitea, antzar eta oilaskoei lepoa moztea, ahari burrukak, eta antzekoak ohizkoak dira gure jai batzuetan.

Askotan entzun izan diegu Arrasateko Caza y Pesca elkartekoei eurek ehizan egiten dutela baina birpoblazioak ere egiten dituztela. Horien aurka gaude. Arazoak sortzen dituzte, kanpoko espezieak ez dira hemengo ezaugarrietara egokitzen eta, egokitzen direnean bertako arrazen hibridazio eta arraza garbitasun arazoak sortzen dituzte.

Ehiza antzinako ohitura dela esaten da, eta ez da inon-

dik ere hala. Lehenengo gizarteetan janaritarako behar beharrezko izateari utzi zionetik, batzuk bakarrik egin izan dute ehizan. Gure base-rritarrak ez dira orain praktikatzeko den "kirol modalitate" horretan ehiztari izan, espezie jakin baten populazioa gehiegizkoa zenean eta soroetan edo etxeko animalietan arazoak sortzen zituenean bakarrik egiten zuten ehizan. Deba arroako baserri-auzoetan (Bedoña, Udala, Gella, Aramaio...) ez da denbora asko azeriak edo beste animalia basati batzuk harrapatu eta baserri baserri

.....

"Zergatik ez gero eta gutxiago ehizatu? Zergatik ez animaliei behar ez den sufrimentua kendu?"

eraman eta ehiztariak auzokideengandik saria jasotzen zutela egindako lan bikainarengatik. Normala zen jai egunetan eskupetarekin txoriak botatzera edo soloetatik uxatzera irtetea ere.

Hala ere, gaur egun jende askok egiten du ehizan, Euskadin 130.000 ehiza lizentzia daude. Ohitura asko daude normalizat ditugun arren berriz aztertu beharko genituzkeenak. Gizonezkoak emakumea menperatu edo gizaki zuriak beltza menperatzea edo gehiengoak sexu-aukera ezberdinen aurrean egiten duenaren parekoak. Antzerako zerbait gertatzen da animaliei ematen diegun tratuarekin, zergatik ez gero eta gutxiago ehizatu? Zergatik ez animaliei behar ez den sufrimentua kendu?

Animaliak defendatzea, animalien eskubideak bermatzearrekin batera ehizako legeak eta ehiztarien azterketak gogortuko dituen euskal lege indarrean jartzea esigitzeko ez datoz erradikal-tasun ekologista merke bate-tatik edo jarrera paternalistatik, justizia hutsezko jarrera dira.

Gizakiaren baitan mentalitate aldaketa behar beharrezkoa da, ustezko nagusitasun batetatik abiatu-rik milaka espezie desagertarazten ari baita.

Animalienganako harremanak aldatuko dituen kontzientzia berri horren menpe dago, neurri handi baten, planetaren iraupena.

(*) EKIKO PARTAIDEA (erredakzioan itzulia)

USTEAK USTE

IKASTOLEN ALDE

Hamabost urte luze pasa dira jadanik nire lehen Kilometroak ospatu zenetik, 1977an eta Beasainen antolatu baitzen lehen aldiz Californiatik hartu eta kopiaturiko jai berezi hau.

Euskara eta ikastolen alde sorturiko jai hauek hor darraite gaur egun garai hartan martxan jartzeko ikusi ziren arazoiek gurekin jarraitzen dutelako oraindik.

Asko aldatu dira jai hauek, orain gazteen elkargune berezi bihurtu direlarik. Pozgarria da horrelako ekintzetan ere gero eta gazte gehiago ikustea.

Baina aurten jai horietan ikusitakoak erreflexio txiki bat egitera bultzatzen nau. Nire ustez guraso gutxi ikusten da. Lehen baino gutxiago. Eta hori da kezkatzen nauena. Ikastolen arazoak konpondurik daudela dirudi. Eta gauzak ez daude horrela.

Ez dakit zertan geldituko den Jauriaritzan dauden alderdiek sinaturiko paktoa baina une oso garrantzitsuen atarian gaudela ziur nago. Eta laster helduko zaigu ikastola eta herri bakoitzean gure etorkizunerako eredu aukeratzeko une erabakiorra.

Egun horretarako jendea erne eta beharko diren bileretan parte hartzeko prest egotea beharrezkoa litzateke.

J. R. ELORTZA

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Umeentzako
moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

ARRASATE
PRESS

HARPIDETZAK



77 05 65

Garagartza: ezaugarri urbanoak dituen baserri-auzoa

Baserri-auzoa izanda ere, gune-urbanoa medio, Garagartzak kaleko auzoekin zer ikusi handia du. Antton Okina auzo-alkateak esandakoaren arabera, auzoko 150 biztanleentzat berrogei baserri inguru daude Garagartzan, "baina ganadurekin eta horrela zazpi bakarrik, hau Arrasateko gune-erresidentziala da eta".

Auzo-etxe dotorea dute Garagartzan, baita orain 15-16 urte auzoak frontoia egiteko erositako lur-sail ederra ere, "Seat 600 baten errifan bidez ateratako diruarekin erositako lur-saila da hori. Frontoia egin nahi genuen, planoak eginda zeuden, baina Musakolako kiroldegia egiten hasi ziren eta zegoen diruak han gastatu zuten. Orain lur-saila Udalarari utzi diogu, 8 urteren buruan kirol-guneren bat egin dezan, eta egiten ez badu, lurra berriro guretzat izango da". Kirol-gune edo frontoiarena ez da Garagartzan duten proiektu bakarra: Arrasatera arteko espaloia egitea; saneamendu osoa egiteko dagoenez, uraren sarea egokitzea, bestela etxetako zikinkeria guztia errekaratzen da eta; igandetan trikitilariekin erromeriak egin ahal izateko, plazako kioskoa



Hemendik bi urtetara, Garagartza-Kobate bidea ez da auzo barrutiak pasatuko.

estaltzea... eta auzo guztietan bezala, lurraren ordenamendua eta PERIen abantzeak behingoz bukatzea. "Eliza eta kanposantua ere, konpontzeko daude -zioen Antton Okinak- baina kasu horretan ez dakigu nora jo, Udalak ez du bere arazotzat eta elizak dio dirurik ez dela. Dena dela, auzoko kulturondare dira eta eror ez daitezun zerbait egin beharko da".

Arrasate ez dago hain gertu

Orain arte aipatutakoek

garrantzia bazuten ere, Antton Okina Garagartzako auzo-alkatearentzat auzoak duen arazorik larriena, Arrasatera arteko bidea egiteko garraiorik eza litzateke. "Garraiorik ez egoteak asko mugatzen gaitu. Aramaion antolatuta dagoen autobusa aprobetxatuz ume gehienak Almen-era bidaltzen ditugu, eta Arrasatera eraman nahi izanez gero, geure kontu egin behar izaten dugu bidea. Erosketak egiteko arazo bera, autoa edo taxia erabili behar. Gure ustez, mikrobus zerbitzua jarri be-

harko litzateke martxan, nahiz eta defizitarioa izan, beharrezko zerbitzua da eta. Santa Ageda, Bedoña, edo Udalak ere, arazo bera dute. Aramaion bertan, auzoetara joan eta haurrak jasotzeko badute zerbitzu hori".

Dena dela, guztia ez dago egiteko Garagartzan, eta auzoko bariantea, Kobaterako bidea kanpotik bidaliz, bi urtetarako egitea bukatuta egotea espero da. Era berean, laster hasiko dira 11 txalet berri egiten, guztira 22 etxebizitza.

BIONA

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



1.200 zentimetro kubikora arteko autoen jabeek 7.000 PTA ordaindu beharko dute.

Ibilgailuen gaineko zerga, batzaz beste %6an igo

Azken Udal Plenoan pertsonal, enplegu, hazienda eta dirukontuetako batzordeen akordioz, 1993rako ordenantza fiskalen aldateta onartu zen. Oinezko arrasatearraren poltsikoan eragina duten Udal-zerga eta tasesen aldaketak asko izan ziren, beraz astezaste arrasatear bakoitzak datorren urtean zenbat eta zergatik ordaindu beharko duen jakiteko aukera izango du.

Hiru arrasatearretik batek ibilgailuren bat du, ondorioz ibilgailuen gaineko zergatan eman den batzaz beste %6,3ko igoerak, jende askorengan izango du eragina. Aurten 1.200 zentimetro kubikora arteko autoa zu-

ten 6.327 arrasatearrek 7.000 PTA ordaindu beharko dute datorren urtean; hortik gorakoa dutenek, berriz, 14.800. Kamioi-jabeak, -631 ziren otsailen-, karga erabiltzeko duten gaitasunaren arabera, 8.700 PTAtik 30.500 PTA arteraino ordain dezakete. Motor-zaleei ere, datorren urtean eragingo die Plenoak onartu zuen %6,2ko igoerak: zilindrada txikikoek 900 PTA, zilindrada ertainekoek 1.600 PTAtik 6.200 PTAra eta zilindrada handikoek 12.400 PTA ordaindu beharko dute. Aipatutakoez gain, autobus, traktore eta atoiaren gaineko zergetarako ere, antzerako igoerak onartu zituzten.

Lanpostu-eskaintza Mankomunitatean

Deba Garaiko Udal

Elkarteak bost lanpostu betetzeko beharra dauka: jornada osoz harozgintza monitorea, iturgintza monitorea eta administrari-laguntzailea; jornada erdiz, berriz, marrazketa monitorea bat eta beste iturgintza monitorea bat. Lanpostu hauei buruzko informazio zabalagoa izan edo izena emateko inprimakiak eskuratzeko, Mankomunitatearen bulegoetara joan edo telefonoz dei daiteke 79 33 99 zenbakira, azaroaren 13a baino lehen.

Ezohizko plenoa astelehenean

1.992ko aurrekontuaren kreditu aldaketaren bigarren espedientea dela eta, astelehenean Udal Plenoa burutuko da.

Eroskik bazkide berria

Grande Distribuzione Europea enpresa italiarra da, Eroskiko bazkide berria, 1.610 milioi inbertitu ondoren. Eroskiko 18 hipermerkatuetako ihardueran parte hartuko du.

LAN ESKAINTZA

LANTEGI-ESKOLAK ondorengo pertsonala behin behinerako kontratatu beharra du

- Elektrizitateko monitorea 1
- Igeltserotzako monitorea 1
- Arozgintzako monitorea 1
- Marrazketako monitorea 1, jornada erdiz
- Iturgintzako monitorea 1, jornada erdiz
- Administrari laguntzaile 1, jornada erdiz

Instantziak aurkezteko epea azaroaren 13an 3ak baino lehen bukatuko da. Deialdiaren oinarriak Mankomunitateko bulegoetan egongo dira.

Arrasate Pasealekua, 5.

Tfnoa: 79 33 99 / 99 ARRASATE



GOI MAILAKO BITXIAK ETA ERLOJUAK

Eskaintzen dugun produktuen kalitatea da gure diztira. Akabera bikaineko bitxiak, diseinurik moderno eta dotoreenaz eginak.

NAROKI

Erdiko kale, 23
Tfnoa: 79 20 47 ARRASATE



Eurotaxia eta hondakinen tratamendua eta lanbide-hastapenez hitz egin zuten prentsaurrekoan

“Zaldibar ikastetxea” egingo dute Lantegi Eskolakoek

Eurotaxia, bailadan biltzen diren hondakineñ tratamendua, eta Lanbide Hastapeneñ ikastaroen berri eman zen asteazkenean Mankomunitatean eskaintako prentsaurrekoan.

German Berecibar, Mankomunitateko gerenteak esandakoaren arabera, Eurotaxiak, edo gutxitu fisikoen garraiorako taxiaren zerbitzuak dagoeneko hilabete bete du. 4 milioitako aurrekontua duen taxi-zerbitzu berezi hau, ordu libreetan, goizeko 9.15etatik arratsaldeko 4.45etara pertsona normalek ere, erabili ahal izango dute.

Hondakinen tratamenduari buruz, bailadan papera biltzeko 40 kontenedore jarri

direla adierazi zen prentsaurrekoan. Era berean, Beasain-Durango errepidearen obrak hasten direnean, Epeleko zabortegi kontrolatua irekitzea espero dela aipatu zen.

Bukatzeko, Lanbide Hastapenez hitz egin zen, aurren bi ikastaroren bidez 100 gazte bilduko dituen ekintzaz. Lantegi Eskolaz aipatu behar, Udalak MCMko eraikuntza erosi eta 25 urtetarako zesioa egin duela. Lantegi-Eskolaren helburuetariko bat, eraikuntza hori egokitu eta “Zaldibar” ikastetxea eraikitzea litzateke, hezkuntza ez arautuaren zentrua. Beste helburu garrantzitsua, INEMeko sede berria bukatzea da, 18-30 hilabetetan egitea espero dena.

Lanuzte teknikoa Fagor Ederlanen

Beste lantegi eta kooperatiba askoren moduan, Fagor Ederlanen ere gogor ari da eragiten krisia. Automozio sektorea zailtasun ugari igarotzen ari da eta kotxe fabrikante gehienak, produkzioa gutxituz, lanuzte teknikoak egiten ari dira. Normala denez, Fagor Ederlan errealitate horretara egokitu behar izan da, eta azaroaren 9tik 16ra lantegian lanuztea egingo da. Lanuzte gehienak alternatiboak izaten dira, astean egun bat, baina Ederlaneko lan-prozesua kontuan hartuta, 8 egun jarraian egitea erabaki da.

Bosniarrei Udalaren Elkartasuna

Bosniako umeei Arrasatek eman diezaioken babesa dela eta, Alkatearen proposamenez Gobernu-Batzordeak erabaki bikoitza hartu zuen: alde batetik, dagozkie erakundeei adieraztea behar izanez gero, Bosniako umeen egonaldia antola daitekeela Arrasaten ere; bestetik, Ongizate Batzordeari gai honen inguruan beharreko neurriak aztertze-ko eskatzea.



DAMKAR'T

Estetika eta
Ileapaintzaile Eskola
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52
EIBAR



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Zarraoa

ESTETIKA ZENTRUA
Lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

ARRASATE
PRESS

HARPIDETZAK




77 05 65



Jubilatuen Eguna ospatzeaz gain, pasa den larunbatean Ferixa eguna ere izan zen Aramaion. Baseritarrek urtean zehar jasotako produktuak erakutsi eta sari ederrak jasotzeko aukera ere izan zuten. Jubilatuek bazkari ona izan zuten bertsolari eta guzti. Egun eder hau pasa ondoren, hurrengoan pentsatzen hasi behar.



Tolosako abesbatzen lehiaketan Exaudi, Kubako abesbatzak irabazi zuen lehen saria. Arrasaten ere izan genituen kubatarrek entzuteko aukera, pasa den larunbatean San Frantzisko Parrokian egon baitziren. Jende ugari bildu zen eta adituen komentarioen arabera, merezi zuen bertara joateak, izan ere abesteko modu bitxia agertu zuten.




Dagoeneko denok jakingo duzue *Eginek* aldaketa batzuk sartuz, ale berriztua aterako duela datorren igandean. Publizitate kanpainaren barruan, jai berriaren umea agertu izan da bai telebistan bai prentsan ere, eta hona hemen Arrasaten irudi horiek banatzen ibili den medikuz jantzitako gizona. Bitartean datorren iganderarte itxoin behar *Egin* berria ikusteko.


Kili kili aldizkariak urtero egiten dituen lehiaketaren barruan Arrasateko ume asko izan dira aurten irabazi dutenak. Guztira 20 izan dira sari bana jaso dutenak. Horrez gain, Aretxabaleta, Eskoriatza eta bailarako beste herri askotako umeek hartu dute parte, bizikleta Oñatiko Ainhoa Kortabarriak irabaziz. Zorionak!

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
 **77 05 65**

mokasin
 Zapatak eta osagarriak
IREKITZEA: LARUNBATA HILAK 31.
 Kontzeziño, 6
 Tfnoa: 76 06 78
 ARRASATE

 **ERRASTI KRISTALDEGIA**
Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak akzesorioak
 Olarte kalea, 47 beheha Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

IZEN PROPIOAK



Emakumeak dira ikastaro honen protagonista. Aste honetan, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan gozogintza ikasta-

roa hasi da. Pastelak eta bestelako gozoki ederrak prestatzen ikasi ezkerro, etxeokoe seguruenerik hatzamarrak txupatuko dituzte.



Argazkian ikusten duzuen neska mutiko taldea eta Julia Monje irakaslea Balentzia aldera doaz txango berezi baten. Bidaia, eskola ibiltarien programaren barruan sartzen da, eta 7 egunetan Cordoba eta Palentziako umeeekin ibiliko dira. Seguruenerik argazki asko eta politak aterako dituzte, eta zer kontatu ere.

● **Juan Mari Uribarren** esne lurrean, **Patxi Madina** fruituetan, **Juli Aspe** barazkietan, eta perretxiko eta aintzinako tresnetan **Eskolako taldea**, izan ziren irabazleak pasa den larunbatean Aramaion izan zen ferixan.

● **Jon Andueza**, 26 urteko arrasatearra eta ATBko langilea denak, lehen saria irabazi du Ondarroako Augustin Zubikarai I. Lehengo Literatur Lehiaketan. Aurretik ere beste hainbat sari irabazi dituen mutil honek, "Delany-ko Parkean azkenengo izarra izkutatu eta gero" izeneko lanarekin irabazi du sari hau, 125.000 PTako saria jasoz.

● **Onintza Arregi Ercilla**, 20 urte; **Nuria Hernandez Gallego**, 13 urte; **Jon Arkauz Gabi-londo**, 9 urteko gazteak izan dira Fagorreko gabonetako postalen lehiaketako irabazleak.

Monte
taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

BAZAR
TOKI ON



.....
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA
.....

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



Zugandik hurbil eta harrituko zaituen prezioekin.

- Goi mailako kalitatea
- Garantiadun jantziak
- Diseinu berrienak
- Adin guztientzat

Ondo jaztea eta gainera eroso joatea gustatzen bazaizu.

Araba Etorbidea, 18 ARRASATE Tfnoa: 77 14 86



**ARRASATE
KIROLAK**



ARRASATE KIROLAKen pozik gaude Everesterako espedizioak erabili duen materiala teknikoa hornitzailea izan garelako.

GURE GORETEX produktueta jarritako konfidantza eskertzen dizuegu, **ASTORE** jantzietan jarri duzuen.

Mendizale, diseinu eta kalitatea, erosotasuna eta segurtasuna nahi badituzu, zatoz **ARRASATE KIROLAK**era. Maila prestigidun hauen garantia eskaintzen dizuegu: **ASTORE, NORTH-FACE, SALEWA, MARMOT, MILLET, VESSANT, TRAN-GO, BOREAL, PELTZ, CHARLET, MOSER, KAMET, CHIRUCA, ROCA, JOANNY, RIVORY, LOWE...**

**ARRASATE KIROLAK
KIROL BAKOITZARENTZAT ERANTZUN BAT!!**

Kontzezino kalea, 8 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 79 46 12 / 77 12 47 Faxa: 77 05 30

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Disziplina-batzordeak erabakiari eutsi

Alperrik gora begira egotea, aspal-di honetan zerutik ez da miraririk etortzen eta. Seguruen mirari horren zain izan dira Kajoi Taberna eta Fosforos taldeak, baina duela denbora gutxi sortutako disziplina-batzordeak ez du atzerapausurik eman, eta planteatutako errekursoari ezezkoa eman dio. Beraz, Kajoi Taberna eta Fosforos taldeak

kanporatuak izan dira. Talde biek gertatutakoa ez zela hainbesterako izan aitortu dutenean, disziplina-batzordeak hartutako erabakia zuzena izan den edo ez galdetu behar da. Gustoko erantzunak ematea zaila da, baina argi dago aurrerantzean muturrekoka hasi aurretik, oraindik jokoan dauden taldeek bi aldiz pentsatuko dutela.

**NUEVO
taberna**

Bañez Dokfoea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tifnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?


SEGURASKI BAIETZ !

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	5	4	1	0	42	10	9
ZULOAK	5	4	1	0	19	11	9
AIZPUN BILA	5	4	0	1	25	12	8
LOS HEREDIA	5	3	1	1	24	8	7
URMAY B. K.	5	3	1	1	23	10	7
ARRASATE KIROLAK	5	3	1	1	21	14	7
BUKANAK	5	3	1	1	18	14	7
DANOK LAGUN	5	3	1	1	17	14	7
SIBILIUS ROVER	5	3	0	2	20	11	6
BETRAYER	5	1	3	1	15	14	5
KAIXO LENIZ	5	2	1	2	20	22	5
ITT	5	2	0	3	20	15	4
WHISKERIA LINDE	5	1	0	4	12	29	2
GARIBAI-5	5	1	0	4	12	19	2
DRAFT	5	1	0	4	10	30	2
DRINK TEAM	5	0	2	3	6	18	2
RESAKAS	5	0	1	4	9	31	1
AMOZKIBAR II	5	0	0	5	6	37	0
GUZTIRA	90	38	14	38	319	319	90


b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	5	5	0	0	22	4	10
BIZKORRAK	5	4	1	0	12	5	9
JODO FLORO	5	4	1	0	17	9	9
ZIZTI ZAZTA	5	3	2	0	29	10	8
DIEGO ANTONIO	5	3	1	1	20	12	7
KAKAJAURI	5	2	2	1	13	10	6
LA BANDA	5	3	0	2	19	14	6
MOTZ	5	3	0	2	19	26	6
PUBLICOOP	5	2	1	2	11	18	5
GATZBAKUAK	5	2	1	2	12	19	5
ZULUS	5	2	0	3	20	20	4
ANBOTOSTE KT	5	2	0	3	10	18	4
LAUTHERBRUNNEN	5	0	1	4	10	21	1
TRONKOTEAK	5	0	1	4	11	24	1
BAYERN PROMESAS	5	0	1	4	9	24	1
ATERPE KAFETEGIA	5	0	0	5	5	16	0
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
KAJOI-TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	90	39	12	39	278	278	90

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
NOSKI	5	5	0	0	22	6	10
TRIKITI	5	4	1	0	39	8	9
ADELAIDA-HAIZEA	5	4	1	0	27	6	9
ADOBE F. C.	5	4	0	1	25	7	8
ALPARGATA TURBO	5	3	1	1	26	16	7
TXOKO TABERNA	5	3	0	2	17	14	6
LASO ARREGI	5	3	0	2	15	14	6
AUF DEM KOFFER	5	2	1	2	14	15	5
ARRASATE KRIST.	5	2	0	3	18	19	4
GURE LEKU	5	1	2	2	23	26	4
KRISKI BALDA	5	1	2	2	11	14	4
NUEVO TABERNA	5	1	2	2	16	22	4
GANBELAS	5	1	1	3	11	12	3
NABARROS	5	1	1	3	15	23	3
ALLA KUIDAUS	5	1	1	3	11	21	3
SEGUROS ORBITA	5	1	0	4	14	33	2
ATXANTA KE TE...	5	1	0	4	11	37	2
BALEIKE	5	0	1	4	8	30	1
GUZTIRA	90	38	14	38	323	323	90

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOTO IMAGEN	5	5	0	0	29	9	10
SUM. IND. UGARTE	5	4	1	0	34	6	9
MONTERREY TABERNA	5	4	0	1	28	14	8
PEPELUS	5	3	1	1	25	13	7
LEINTZ GARAGAR	5	3	1	1	16	6	7
LOS DIMY	5	2	2	1	30	16	6
SOKOAKOAK	5	3	0	2	20	14	6
NOTXINGAN FLO.	5	2	2	1	21	15	6
KOXKAS	5	2	2	1	14	11	6
POTROAK LORAT.	5	1	3	1	17	20	5
UGLYS	5	2	0	3	12	18	4
SOLANO 7 MARES	5	2	0	3	21	20	4
EZKINAKO HONTZAK	5	2	0	3	13	27	4
ZOTZ	5	2	0	3	17	31	4
ARTZANKOS UDALAITZ	5	1	1	3	24	27	3
OLEEE!	5	0	1	4	14	30	1
ILUNA TABERNA	5	0	0	5	10	35	0
BAYERN DE LEINTZ	5	0	0	5	8	41	0
GUZTIRA	90	38	14	38	353	353	90



Iluntz eta Iturriotz
tabernak
ARRASATE

AMAJUR 

EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE

FOTO
imagen
ARGAZKI



Zerkaosteta, 5
Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE

BELARRIRA



Nork harrapatu baloia? Atezainak huts egin dezake edozein unetan; hutsak ondoriozik izan ez dezan, babesa eman behar zaio ahalik eta gehienetan... beste la hor agertzen da beste taldeko aurrelaria aukerak aprobetxatzen trebea dena.

◆ **Joan den urtean bezala**, aurten ere kaleratu dira dagoeneko ihardunaldi guztietako egutegiak. Poltsikoko egutegi horietan, normala denez, ihardunaldien berri emateaz gain, datorren urteko egutegi laborala agertzen da; beraz, bi gauzatarako aprobetxagarri: noiz jokatu eta zer egunetan bizi garen jakiteko. Egutegiak eskuratzeko, herriko hainbat tabernatan eskatzea nahiko da, bestela antolatzaileengana jo.

◆ **Datorren astean** Zaldibarko Txapelketako bilera egingo da, pasa diren ihardunaldien balantzea egin asmoz. Bilera eguna oraindik zehaztu barik dago, baina jakitera emango da.

◆ **Asteburuko partidu ikusgarrienak:**
 A taldean, Aizpun Bila - ITT
 B taldean, Mikelos -Jodo Floro
 C taldean, Laso Arregi - Txoko taberna
 D taldean, Foto Imagen Argazki - Sum. Ind. Ugarte.

EMAITZAK

A TALDEA

Drink Team 0	Aizpun Bila 6
Zuloak 4	Urmay Burger King 3
Bukanak 5	Amozkibar II 2
Betrayer 4	ITT 6
Arrasate Kirolak 1	Argi Ibili 4
Sibilus Rover 6	Whiskeria Linde 2
Draft 7	Kaixo Leniz 2
Los Heredia 8	Resakas 1
Garibai- 5 1	Danok Lagun 2

C TALDEA

Atxanta ke te... 3	Nabarros 7
Alla Kuidaus 1	Alpargata Turbo 7
Laso Arregi 4	Arrasate Kristaldegia 2
Ganbelas 1	Auf Dem Koffer 2
Adobe 6	Baleike 0
Noski 5	Txoko Taberna 1
Seguros Orbita 3	Krskibalda 5
Trikiti 3	Gure Leku 3
Nuevo Taberna 1	Adelaida 7

B TALDEA

Mikelos 5	Bayern Promesas 0
Gatzbakuak 2	Publicoop 3
Aterpe Kafetegia 0	La Banda 3
Lautherbrunnen 3	Motz 4
Anbotoste KT 2	Tronkoteak 1
Diego Antonio 3	Zulus 1
Bizkorak 1	Zizti zazta 1

D TALDEA

Monterrey tab.7	Oleee! 4
Koxkas 4	Foto imagen 2
Uglys 0	Sum. Ind. Ugarte 3
Ezkiñako Hontzak 5	Solano 7 mares 4
Lenitz Garagar. 2	Potroak Lorategi 2
Artzankos Udalaiz 12	Iluna Taberna 1
Notxingan Florest 5	Pepelus 5
Bayer de Leintz 2	Sokoakoak 7
Los Dimy 8	Zotz 3

**I
R
TABERNA
T
I**

Ferrerias kalea
ARRASATE
 Tfnoa: 79 71 80

Zarugalde
 kalem...

BRANKA
 taberna

Jovi

PINTURA EKOLOGIKOAK
 Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 7

Zaldibar

- 08.45 Atxanta ke te merece.../Adobe
- 10.00 Mikelos / Jodo Floro
- 11.00 Betrayer / Garibai 5
- 12.00 Publicoop / Motz
- 13.00 Aizpun Bila / ITT
- 14.00 Aterpe Kafetegia / Zizti zazta
- 15.00 Nuevo Taberna / Alla Kuidaus
- 16.00 Bayern Promesas / La Banda

Iturripe A

- 13.00 Drink Team / Arrasate Kirolak
- 14.00 Kakajauri / Gatzbakuak
- 15.00 Danok Lagun / Urmay Burger King
- 16.00 Diego Antonio / Tronkoteak
- 17.00 Los Heredia / Kaixo Leniz

Iturripe B

- 09.45 Sibilius Rover / Draft
- 11.00 Alpargata Turbo / Arrasate Kristaldegia
- 12.00 Lautherbrunnen / Anbotoste K. T.
- 13.00 Laso Arregi / Txoko Taberna
- 14.00 Ezkiñako Hontzak / Zotz
- 15.00 Artzankos Udalaiz / Notxingan Florest
- 16.00 Monterrey Tab. / Leintz Garagardotegia
- 17.00 Bayern de Lenitz / Pepelus

Igandea 8

Zaldibar

- 08.45 Bukanak / Whiskeria Linde
- 10.00 Trikiti / Kriskibalda
- 11.00 Gure Leku / Baleike
- 12.00 Foto Imagen / Sum. Ind. Ugarte
- 13.00 Uglys / Iluna Taberna

Iturripe A

- 09.45 Zuloak / Amozkibar II
- 11.00 Los Dimy / Koxkas
- 12.00 Ganbelas / Adelaida Haizea
- 13.00 Oleeel / Solano 7 mares

Iturripe B

- 09.45 Resakas / Argi Ibili
- 11.00 Nabarros / Auf Dem Koffer
- 12.00 Sokoakoak / Potroak Lorategi
- 13.00 Noski / Seguros Orbita

NON DAGO BALOIA?



Non dago baloia? lehiaketako lehen irabazleak pozik baino pozago eraman zuen 20.000 PTako saria. Bigarren hile honetako lehiaketak ere sari berbera izango du; beraz, eraman nahi duenak baloia non dagoen asmatu eta txartela lehenbaitlehen ARRASATE PRESSERA ekarri edo bidali beharko du zozketan sartzeko. Aste honetako baloi izkutuari usainik hartzen diozue?

3. astea

Non dago baloia?

- Erantzuna
- Izena
- Tfnoa


Trikipublic

Kanpatorpea, 2
Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56
ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioak •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

LIZARRA
taberna

Leintzibar kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35



Txispas AUKEAko lehendakaria eta Jose Mari Balzategi saskibaloitzaileko presidentea.

Kirolaren gorabeherak

Beñardo Kortabarría

Kirol-munduan eztabaida sortu da: Udala nahiko inplikatzeko da? AUKEAko balio du? Kirol-taldeak planteamenduak gehiegizkoak dira?... Horretaz hitz egiteko, etor zitezkeen askoren artean eta mahai inguru baten mugak kontuan hartuta, Agustin Ibarluzea "Txispas" AUKEAko presidentea, J. M^o Balzategi Saskibaloitzaileko taldekoa eta kirol-munduan dagoen jarreraren baten ordezkari bat, eta Fernando Aguriondo kirol-teknikaria bildu genituen.

ARRASATE PRESS: Gaurko egoera?

Balzategi: Haurren kirola, federatuena eta denborapasakoa bereiztuko nituzke. Haurren kirolean gauza positiboak ikusten dira eta kirol-proiektua aurrerapausu garrantzitsua dela esan daiteke. Federatutako kirol-mailan arazoak daude, jende gehiena erreta dabil, AUKEAren aldetik ez da kriteriorik ikusten eguneroko dinamikan: kantxa banaketa, federatuak nortzuk diren edo ez jakiteko...

Txispas: Lehenik esan behar da orokorrean kirol gehiago egiten dela, beraz kantxak libre egoteko zailtasun

handiagoak daude, federatuz gain erabiltzaile gehiago ere badira eta.

Kontuan hartzekoa da gainera, instalazioak, Muskola kasuan 15 urte dituztelako eta askotan kristo bat eginda daudela; Iturripe ondo dago eta Atxabalpekoak mantenu karestia eta errentabilitate-sozial gutxikoak dira.

Bestalde, gauza onak ere egin dira, hor daude kirol-medikuntza zerbitzua edo kirol-aurrekontuetan azken aldean egon den egoera.

A. PRESS: Kirolarentzat behar beste diru dago?

Txispas: Bai, 1987an 60

milioi zeuden eta aurten 152. Helburua, nolabait errentabilitate sozialarekin oreka lortu behar dela jakinda, instalazioak autofinantziatzea litzateke.

Balzategi: Ez, 7.680.000 PTA dauzkagu 25 kirol-talderen artean banatzeko.

Aguriondo: Uste dut subentzioetan diru gehiago eman beharko litzatekeela, politikariek kirolarentzat dirua aipatzerakoan mantentzen dute, aipatzen dute, baina ez dut uste horrek kirolarentzako dirulaguntza bezala har daitezkeenik, politikariek nahastu egiten dituzte biak.



Kirol-taldeek batzorde bat sortu dute AUKEAk orain arte egindakoa aztertzeko.

A. Press: Eta AUKEaren papela?

Balzategi: AUKEAk arazo handi bat du, Udalaren menpe egotea. AUKEAko batzordea kirol-taldeetako hiru ordezkari, bost zinegotzik, erabiltzaile batek eta eskoletako ordezkari batek osatzen dugu, eta han gaude-nean ez dirudi barku berean gaudenik, ez gara horrela sentitzen, nolabait esateko tentsio edo borroka giroa dago.

Txispas: Nik uste dut AUKEAn harremanak onak direla eta gauzak lortu ere egiten direla, arazoak konpontzeko mahai on bat izan daitekeela.

Balzategi: Gauzek konpontzeko bere denbora behar dute eta jarraipena eginda ere, askotan ez dira konpontzen. Beharbada kirol-taldeek autokritika egin beharko genioke geure buruari, ditugun helburuak beste batzueri transmititzen ez jakitearren. Geure egin ditugu, baina akaso Udalari, herriari edo enpresei ez diegu behar bezala transmititu. Hala eta guztiz

ere, uste dut AUKEAn ez dela kriterio definiturik egon.

Txispas: Bakoitza bere bidetik ibili dela esan daiteke, talde berriak sortu eta inori abisatu ez, hortik kantxen arazoa... hemendik aurrera kirol bakoitzeko arduradunen artean koordinazioa lortu beharko da.

Aguriondo: Nik uste dut AUKEA bera baliozkoa dela, ideia gauzatzea beste kontu bat da.

Balzategi: Dena dela, kirol-talde batzuk uste dugu AUKEA ez dela gai izan taldeekin sintonizatzeko, eta horregatik AUKEAren sorreratik lau urte bete direnez, batzorde bat sortu dugu, AUKEA operatiboa den edo ez jakiteko.

Txispas: Lau urte pasa eta gero, ondo daude horrelako gauzak, zer egin den ikusteko.

Balzategi: AUKEAko gerente postuarena aipatzea inportantea da, Arrasateko kirol-egiturari bultzakada handia eman diezaiokeen figura da eta. Orain denbora gutxi egin da postu horretara-


rako lehiaketa eta ez dute inor aukeratu; zergatik? bada gutxienez abokatu edo ekonomista perfila zuen norbait eskatzen zelako. Baldintza horiek eskatzean, badirudi AUKEAn lehentasuna ematen zaiola kontrol ekonomikoari... eta nire ustez Arrasaten badago kirol-mundua ezagutzen duen jendea, perfil hori ez duena, baina postu horretan lan ona egin dezakeena.

Txispas: Lanpostu horren baseek zabalagoak izan behar dute, argi dago, figura hori garrantzitsua da eta.

A. Press: Arrasate Kirol-Proiektutik datozen umeekin zer egin beharko litzateke?

Balzategi: Kirol-taldeen-tzat onena eta erosoena selekzioa egitea litzateke, baina ahalegina egin behar da guztiak jokatzeko, beste irtenbideren batzuk aurkitu beharko lirateke.

Txispas: AUKEA, gaudenok gara eta duguna dugu, hala eta guztiz ere kirola egin nahi duten umeei tokia aurki-



AGUSTIN IBARLUZEA "Txispas"

AUKEAko lehendakaria


AUKEAk lan ona egin duela uste du eta aurrera begira baikor agertzen da.



JOSE MARI BALZATEGI

Arrasate Saski-Baloi taldeko lehendakaria

Kirolaren etorkizuna beltz ikusten du, Udala eta lantegiak gehiago busti beharko liratekeela uste du.



FERNANDO AGURIONDO

Kiroldegiko kirol teknikaria

AUKEAren modelo ona dela uste du, baina dirulaguntzetan kirolak gehiago behar duela.

tu edo diseinatu egin beharko genieke.

Aguriondo: Nik uste dut nahiko aukera badutela, detallaxo batzuk faltako dira, baina instalakuntzak badira.

Balzategi: Kirola egiten dutenen kopurua etengabe handituz doa eta hortik dator arazoa.

Aguriondo: Eta kontuan hartu behar da badaudela kantxa gabeko kirolak ere, Behobia-Donostiako izenematea inportantea izan da, Zaldibarko partaidetza...

A. PRESS: Kirol-talde batzuren planteamenduak ez dira gehiegizkoak Arrasate moduko herri batentzat?

Txispas: Beno, nik uste dut eliteko gauzak egin nahia izan ezker, gutxienez herrialde mailan egin behar direla.


Balzategi: Guk Deba-Garaia Saskibalo Elkartea hor geneukan, baina ez dugu laguntzarik jaso. Arrasateko arazo bat dauka, ez dago ez Gipuzkoan eta ez Araban... eta hortik ere kalteturik.

Aguriondo: Zenbait kasutan, futbitoan esate batera, Donostiako taldeek ez dute nahi izaten hiriburutik ateratzerik, eta lortu egiten dute gainera.

A. PRESS: Badirudi enpresa pribatuek ez dutela kirolean inbertitzerik nahi, kirol-taldeen ustez Udalak ez du behar beste ematen...non dago irtenbidea?

Balzategi: Gogorra da esatea, baina irteera gurasoengan egon daiteke. Beste gauza batzuetarako ordaintzen duten moduan, ordain dezatela kuota bat, azken finen seme-alabak egiten dutenagatik ardura gehiago izatea eskatzen zaie.

Elitista? lasai, bekak sortuko ditugu eta ez da inor jokatu barik geldituko, gura-



Teknikariak baikor, kirol-taldeak ez.

soengandik konpromezu handiagoa eskatzen dugu, bidaia ordaintzeko besterik ez bada.

Bestalde, uste dut Udalak ere, zeresan gehiago izan beharko lukeela kirol-mailan, inplikazio gehiago.

Eta enpresenak ez du ize-nik, bertakoak izanda ez dira bertakoei laguntza emateko gai, ez dute obligaziorik, krisian daude... baina elkartasun gehiago izan beharko lukete, irabaziak lortzeaz gain, bertan zerbait egiteko konpromezua sentitu beharko lukete.

Aguriondo: Garrantzi gehiago eman beharko litzaiokie kirolaren errentagarritasun sozialari eta enpresa pribatuek ere, hori kontuan izan beharko lukete.

Txispas: Enpresa eta erakunde pribatuen aldetik nahiko panorama beltza somatzen da, beraz kirola egin nahi duenak ordaindu egin beharko du. Dena dela, dirua ez da dena, kirolak baditu beste alderdi batzuk...

A.PRESS: Arrasaten talde bakar bat osatzeaz hitzegiten ari dira...

Balzategi: Arrasaten kirolak duen irteera bakarrenetarikoa izan daiteke, gainera pertsona bat edo bi lanean jarriko nituzke, profesional gisa. Hala ere, ez naiz baikorra eta etorkizuna kezkarria iruditzen zait.

Aguriondo: Ez zait gaizki iruditzen, baseko jendearekin kontaktu beharko litzateke instalakuntzak eta erabiltzeko orduan, baina talde bakar horrek egitura profesionala izan beharko luke. Etorkizuna? ona, larritasunak pasatuko ditugu, baina dagoen azpiegituraz eta jendeaz, egoerak onera joko du.

Txispas: AUKEAren bidez egiten bada, ondo deritzot, koordinazio aldetik irabazi egingo genuke taldeek autonomiarik galdu barik. Lan egiteko modu ona izango litzateke. Etorkizun ona izateko harreman garbiak izan beharko ditugu.

◆ **TXISPAS:**
“Eliteko gauzak egin nahi izanez gero, gutxienez herrialde mailan egin behar direla, bestela hemen sortutako jokalaria berehala eramango dituzte”

◆ **BALZATEGI:**
“AUKEA biltzen garenean ez dirudi barku berean gaudenik, tentsio eta borroka giroa nabarmentzen da, harreman hotzak”

◆ **AGURIONDO:**
“AUKEA bera baliozkoa da, ideia gauzatzea beste kontu bat da, dena dela etorkizuna ona izango da”



Oskar Arrizabalaga



Asier Arrizabalaga

Euskadiko Gizon-proba Txapelketa Aramaion

Asteburu honetan Aramaion Euskadiko gizon-probetako finalak burutuko dira, hiru kategorietan banatuta hamabi probalarien partaidetzaz. Horien artean, Asier eta Oskar Arrizabalaga aramaioarrak, biak igandean.

Oskar Arrizabalaga

- 21 urte.
- Anaiaren kualitate onena? indarra.
- Bere kualitateei buruz beste batzuk hitz egin beharko luketeela uste du.
- Asierrek ez duela gehiegi entrenatu dio.
- Txapelketa Aramaion izateak aliziente berezia ematen diola uste du.
- Bere marka onena ia lau untzekoa da.
- Aurreneko bosten artean sartuta, pozik.
- Gizon-probetan hasi eta marka onak egin zituen, segitzea erabaki omen zuen.
- Astean bi edo hiru aldiz entrenatzen du.
- Gizon-probetatik aparte, sokatiran ere badabil.
- Irabaztea lortuko balu, huraxe izango luke dirulaguntza bakarra.
- Aurtengo txapelketan ahal duena egingo du eta aurrera begira, jarraitu.

Asier Arrizabalaga

- Anaia baino urte bat gazteagoa.
- Oskarren onena bere jenio txarra ei da.
- Harriari tira egiteko, pisu handiak mesede egiten ei dio Asierri.
- Anaiari ez dio akatsik ikusten.
- Txapelketa Aramaion izateak animoa ematen dio.
- Hiru untzeko marka dauka.
- Irabazteko aukera handiak dauka.
- Lagunek animatu zuten gizon-probatan hasteko.
- Astero lau egunetan egin ei ditu entrenamenduak.
- Anaia bezala, soka-tira taldean dabil.
- Orain gazte-mailan ari da, baina etorkizunera begira bere asmoa nagusien mailan irabazteko ahaleginak egitea dela aitortzen du.

LABURRAK

Saskibaloikoak gurasoekin bildu

Saskibaloit taldeko ordezkariak, egoera ekonomiko larria dela eta, joan den astean taldeko jokalarien gurasoekin bildu ziren. Bileran horretara, teoriar agertu behar zuten 115 lagunetatik, 62 agertu ziren, %60a gutxi gorabehera. Guztien artean gurasoz osatutako batzordea osatzea eta hileroko 2.500 PTAKo kuota ezartzea onartu zen, partiduetara joateko autobusak ordaintzeko besterik ez bada.

108 leniztar Behobia-Donostian

Loramendi Kirolak izena emandakoak ikusita, 108 leniztar izango dira igandean Behobia - Donostia lasterketan, 49 arrasatearrak. Orain arte Arrasate ingurutik 20 kilometroko herri-lasterketa honetara joan den korrikalari kopuru handiena da aurtengoa. Ea doazen guztiak bukatzeko gai diren!

Mondra gero eta gorago

Gezurra dirudi, baina iazko denboralditik hona izugarriko aldaketa gertatu da Mondran, joku onari emaitza onak gaineratu behar zaizkie eta ondorioz saillkapenak erakusten duen errealitatea: astez aste postuak igotzen ari da Mondra. Joan den astean Urolari 0 eta 3 irabaziz, asteburu honetan, berriz, Atxabalpera Zalla taldea etorriko da. Teorian, partidu samurra mondragoetarrentzat, baina topikoa hor dago eta gainera egia da, futboleko ez dago arerio txirikirik.

VE ECUADOR
Bidaiak
 Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06

Begoña
 lurrindegia
 Drogeria
 Jostailuak
 Opariak
 Gipuzkoa Etorb. 33,
 Musakola Auzoa,
 Tfnoa: 79 03 73

UXARTE
 Kafetegia,
 gozotegia
 Gaez irekita!!
 JO TA KE!!
 Bañez dokorea, 12
 Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

"PAL"
 burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria
 Uribarri etorbidea 3,
 Tfnoa: 79 31 99

PENALTIAK

● **Waterpolo taldea atera dute Bergaran. Dirudienez, Bergarako igerilekuak ez ditu beharrezko baldintzak betetzen eta bergararrek Musakolan jokatuko dute.**

● **Junior mailako eskubaloit taldeko atezaina, Josu Epelde bere taldeak Ordizian jokatutako partiduen heroiak izan zen, lau penalti gelditu zituen eta.**

● **Pirenyca aldizkaria, Euskaldunak eta Everest-a liburua prestatzen ari da, azken eskaladak barne. Dirudienez, abendurako kalean izango da eta aurkezpena Aretxabaletan egiteko asmoa dago. Ez kasualitatez, noski.**




Behar bezalako debuta, garaipenaz

Kostata, baina Arrasate Rugby Taldeko jokalariek kadeeteez azkenik eman diote hasiera aurtengo liga-txapelketari. Debuta joan den larunbat arratsaldean izan zen, Atxabalpeko zelaian eta Atletiko San Sebastian taldearen aurka. Arauzko denbora bukatu eta gero, 11 eta 10eko markagailu estua arrasatearren alde, partiduen gogortasunaren adierazle den gol bakar bateko abantaila horrekin.

Zela hobetu da Mondra hainbeste?

Eguneroko lana, disziplinaria, motibazioa, adiskidetasuna eta talde-giroa txapel batean sartu, bi hilabetetan astindu eta eki-po hau ateratzen da.



IÑAKI ZEZIAGA
Mondrako entrenatzailea

EMAITZAK

Pilota

Gipuzkoako liga

Alebinak: Arrasate 17 - Oñati 18
Infantilak: Arrasate 18 - Oñati 2
Kadeteak: Arrasate 18 - Oñati 11
Jubenilak: Eskuz esku: Soraluze 10 - Arrasate 18
Bikoteka: Soraluze 10 - Arrasate 22
Nagusiak: Eskuz esku: Arrasate 14 - Zumarraga 18
Bikoteka: Arrasate 11 - Zumarraga 22
Paletaz: Andoain 31 - Arrasate 35

Hurrengo partiduak

Jubenilak: Bergararen aurka, lar. Iturripe, 11.00.
Nagusiak: Azpeitiaren aurka, lar. Iturripe, 11.30.

Eskubaloia

Seniorrak: Umietia 23 - Arrasate Kirolak 12
Juniorrak: Ordizia 15 - Arrasate Kirolak 20
Jubenilak: Arrasate Kirolak 20 - Bidebieta 24
Kadeteak: Umietia 6 - Arrasate Kirolak 18

Hurrengo partiduak

Seniorrak: Igandea, Iturripe 11.30 Bortziriaren aurka.
Juniorrak: Larunbata, Iturripe 19.30 Hernaniren aurka.

Kadeteak: larunbata, Iturripe 16.00 Bizkorren aurka.

Rugbya

Seniorrak: Mungia 13 - Arrasate 9
Kadeteak: Arrasate 11 - At. San Sebastian 10
Hurrengo partiduak
Jubenilak: Arrasate - Hernani, larunbata 16.00.

Saskibaloia

Bigarren maila: Gizonezkoak: Jarrileros 84 - Arrasate 56
Emakumezkoak: Arrasate 54 - Utxoriorria 78
Juniorrak: Juven 73 - Arrasate 75
Jubenilak: Gizonezkoak: Arrasate 98 - Laskorain 40
Itzurun 59 - Arrasate 55
Emakumezkoak: Arrasate 53 - Cía Maria A 47
Kadeteak: Gizonezkoak: Loliola 90 - Arrasate A 59
Arrasate B 47 - Zahor A 90
Emakumezkoak: Amigos 99 - Arrasate A 30
Arrasate B 52 - Laskorain 90
Hurrengo partiduak:
2. maila, gizon: Arrasate - Iraurgi, lar. 18.00
Juniorrak: Arrasate - Eskoriatza, ig. 12.00.
Jubenilak: Arrasate A - Juven, lar. 14.00

Kadeteak: Gizon: Arrasate A - Askatuak A, lar. 12.00
Emakum: Arrasate A - Ondartza, San Vitorren ig. 12.00

Futbola

3. maila: Urola 0 - Mondra 3
Ohorezko liga: Mondra 2 - Ordizia 2
Lehen mailako jubenilak: San Viator 1 - San Andres 4
2. mailako jubenilak: Arrasate 3 - Gazteak 0
Lehen mailako kadeteak: Elgoibar 0 - Arrasate 4
2. mailako kadeteak: Bergara 2 - Mondra 0
Lehen mailako infantilak: Beasain 2 - Mondra 3
Infantilak: Mutillak, Aloña Mendi 1 - Mondra 4
Neskak, Mondra 18 - Ostadar 0
Hurrengo partiduak
3. maila: Mondra - Zalla, igandea 15.45.
2. mailako jubenilak: Arrasate - UDA, larunbata 15.45.
Lehen mailako kadeteak: Arrasate - Aurrera, igandea 10.00.
2. mailako kadeteak: Arrasate - Urola, igandea 12.00.
Infantilak: Arrasate - Aloña, larunbata 10.00.;
Arrasate - Bergara, larunbata 11.30.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

MIREN
APAINDEGIA
Zarugalde, 23-2. Ezk.
ARRASATE
Tfnoa: 79 96 90

Plus Ultra
taberna
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

SALBERRI
HARATEGIA-URDAITEGIA

Azoka Plaza, 22.postua
Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE


Janariak etxean izoztea (I)

Janari freskoek denbora gutxi irauten dute; hala ere, bide ezberdinak erabiliz kontserba daitezke. Behar bada kontserbaziorako modurik zaharrena hotzaren bidez egiten dena izango da. Aspaldidanik, klima hotzeko herrialdeetan, gizakiak tenperatura baxuak erabili izan ditu janariak kontserbatu ahal izateko.

Hozgailuak lortzen du kontserbazioa nahiko epe laburraren barruan, beti ere jakiaren izaera eta hozgailuaren beraren ezaugarrien arabera. Ezaugarri horietaz bereiztasunak emateko, sor dezaketen hotz mailaren adierazgarri diren izarrak izaten ditu hozgailuak, izar bat, bi edo hiru. Era horretako tresnek jakiak kontserbatzeko balio dute bakarrik.

Aparailua lau izarretakoa bada, izoztutako jakiak kontserbatzeaz gain konjelatu edo izoztu ere egin dezakeela esan nahi du, -30°C tarainoko tenperaturak ere lortzen ditu eta.

Jakia osatzen duten teji-



duak zelulaz osatuta daude. Zelula hauek, euren barrukal-

dean, gatz mineralak, proteinak etab izateaz gain, ura ere

badute. Produktua tenperatura baxuetan jartzean, zelule-tako ura izoztu egiten da. Hotza astiro ezarri bazaie (-6°C , -12°C eta -18°C 1, 2 eta 3 izarretako aparailuetan) sortzen diren izotz-kristalak oso handiak izaten dira, ertz zorrotzekoak, eta zelularen hormak urratu egiten dira. Elikagaia kontsumitzeko deskongelatzeari ekitean, urradura horietatik ihes egiten du zelule-tako isurki edo likidoak, eta jakiaren balio nutritibo guztia bertan izaten denez, jakiak hondatzera egiten du.

Aitzitik, hotza oso kolpetik ezartzen bada, (-30°C 4 izarretako hozkailuetan) izotz-kristalak txikiak eta borbilduak izaten dira, eta zelularen paretak apurtzen ez direnez, jakiak bere hartan mantentzen ditu gaitasun nutritiboak eta zaporea.

MARIA TERESA ALONSO
EROSKIKO KONTSUMO
MONITOREA
(Erredakzioan itzulia)



Asteroko eskaintza

Azaroaren 9tik 14ra bitartean
%20ko deskontua FORRO POLARRETAN
%10ekoa beste EDOZEIN artikulutan

KAIXO: SUPER-IRAGARKIA naiz eta diru bihurtzen naiz zure erosketetan, ebaki eta **URIARTE SPORT**era eramaten banauzu. **ERABILI NAZAZU!!**

Azaroaren 14ra arte balio du.

Olarte, 6 Tfnoa: 79 27 78
ARRASATE

Uriarte
SPORT

Informazioa nahi baduzu
zure esku duzu gure laguntza.



“Bezeroaren telefonoa”
901- 20 20 20

Edozein zalantza konponduko dizugu:

- Hornidura-eskabidea
- Kontratazioa: altak, bajak, aldakuntzak
- Ordainagiriaren gaineko argibideak
- Ordainagiriak banketxean helbideratzea
- Kontadore irakurketak hartzea

Eta behar duzun beste edozer kontsulta edo informazio.

IBERDROLA

Zatoz eta ikusiko duzu.



Argazki: Sony CVP - G 700
bideo-inprimagailuarekin
telebistatik zuzenean
inprimaturiko imagina.

**Donostian
urriaren 27tik azaroaren 1era**



Jose Aranzabal

Zatoz **SONYMAGIC**-era eta ikusentzutezkoen
ikuskizun bikain batetan azken berrikuntzak
gozatu ahal izango dituzu.

Jose Aranzabal

**EROSI SONY BAT
ETA ERAMAN BI.**

**Zatoz SONYMAGIC-erako
gonbidapenak jasotzera!**

Jose Aranzabal.
Iturriotz, 15 Tfnoa: 79 15 16 ARRASATE


Osasun kontuak XVI. mendetik aurrera

Orain ere arazo eta kexutik hobeto bagaude ere, osasun kontuak ez dira beti gaurkoak izan gure herrian. Eritetze eta medikurik ere ez zegoen garaietako kontu politikak ditu jasota Jose Letonak, eta kontu horietan errebasu bat egitera goaz aste honetan.

“Compendio Historial de Guipuzcoa” delakoak dioena egia bada, 1625ean 17 sendagile besterik ez zen probintzia guztian, baina ugari ziren “enplastugileak”, “saludadoreak”, “bizarginak” eta “kuranderoak”.

Mondragoen bazegoen hala ere, Maturana izeneko mediku bat eta 1530ean bilera egin zuten beronekin Batzar Nagusietan, probintziarako sendagile soldaduna jartzearen komeneziaz. Herriz herri ibili eta botikak ere bisita zitzen, urten 50 dukateko soldata jartzea erabaki zen, eta gaixo bat sendatzeko irtenaldi bakoitzeko urrezko florin bat eta gaixoarekin emandako eguneko 6 erriel eta jatordua ematea.

“Bizargin” eta “kuranderoak”, gaixoenganako arreta bereziaz gain, astero euren kideei bizarra egitea zuten lanbide, eskriturretan



ageri denez. Urtean zelemine bat edo bi gariren truke, familia guztiaren osasunaz arduratzen ziren eta gizonetzoei bizarra mozten zien astero.

“Saludadoreak” txakurren, sugeen eta beste animalia gaiztoen haginkadak sendatzeaz arduratzen ziren, edosketa, enplasto eta edangarrien bidez, eta jendeak fede handia zien.

Umezurtzak

1553an Gipuzkoako botika bakanetako bat Arrasaten zegoen. 1700. urtetik

hasita, eta umezurtz kopurua handia zela ikusirik, arazoari aurre egiteko lanari ekitea erabaki zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek. 1796ko abenduaren 11n argitaratu zen “Real Cédula sobre policía general de expósitos” delakoa eta bi urte beranduago Mondragoeko inkulsa ireki zen Satorretxen, Deba bailarako herrirentzat. Beranduago, 1804ko Bergarako Batzarrean arazoari osotasunean aurre egitea erabaki zen eta probintzian zehar bost etxe irekitzea erabaki zen. Arrasatekoa 1884an itxi zen.

SUTONDOAN

KAXINTO ETA NARTZO

Madaripeko Mikolas eta Arantzazuko praileak

*K*axinto eta Nartzo, baserri bikote bateko adinez antzeko mutiko lagun handiak ziren. Gaiztoak ez, motelak ere ez, baina bai alper eta ardura bakoak. Goizean goiz etxetik beti elkarrekin irteten dute, nahiz eta eskolara azkenengoaren atzetik iritsi. Aditalben edo Estudioetan beste haibeste gertatzen zitzairen.

Egun batez, herriko ferieguna zela eta arratsaldea nola jai zeukaten, Kaxinto etxeko ardiak zaintzera bialdu zuten bere gurasoek, Harrobi-Zaharreko larrara. Nartzo, berehala; bere atzetik, karta pare hartuta, arratsaldea jokoan pasatzeko asmoan. Harrobi-Zaharpeko leundara iritsi zirenean jaregin zituzten ardiak euren kasa eta hasi ziren karta-jokuan, inoiz ardi ardurarik ez balute bezala. Horiek, zer esanik ez, handik aldi labur batera, Aran-Erdiko patxa solóan aurkitzen ziren, “biba la Pepa” baten, hau ona eta hori hobea, eta hau bada gerria ez dadila izan bakia. Eurak beste mundu baten bizi balira bezala, jokuan jo eta ke.

(Jarraituko du)

ARREGI TAR TIBURTZIO


ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

FELIPE MADINA
ZURAK
Zarugalde, 40, ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

aitzgorri
LARRU eta LARRUKIAK
Salvatierrako larrukiak
60km.tako beherapenarekin.
Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE



La Asunción ikastetxea, 1931



suntzion ikastetxea San Viator Txiki bihurtu da monjek ikastetxea utzi zutenetik. Azken urteetan neska-mutikoen ikastetxea bazen ere, garai baten neskatilak bakarrik joaten ziren eta erretratuan ageri den bezala unifor-

mearekin gainera, ohi zenez.

1931n ateratako argazki honetan, gerra aurreko irudietan beraz, honako mondragoetar hauek agertzen dira: **Maria Hormaetxea, Pakita Etxebarria, Augusta Gonzalez, Rosa Hormaetxea, Maria Loreto Aranzabal, Soledad**

Agirrebeitia, Urbana Egidazu, Bizenta Velez de Mendizabal, Felizitas Iñurrigarro, Maria Rosario Morales, Sofia Kortabarria, Luzia Oiarzabal, Elena Mendizabal, Pilar Egidazu, Gloria Uribetxeberria, Maritxu Velez de Mendizabal, Kristina Mendizabal.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
Iaruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**



77 05 65

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Ikasle batek logela behar du Arrasaten.** Dei egin 28 75 70 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Zigarrolan.** Tfnoa: 79 79 94
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73
- **Etxebizitza berria salgai Zarugalden.** Tfnoa: (945) 25 89 03.
- **Eskoriatzan etxebizitza batean logela bat alokatzen da.** Dei egin asteburutan 64 34 14 tfnora.
- **Pisua osatzeko pertsona bat behar da Arrasaten,** dei egin goizez 79 11 19 tfnora.
- **Aretxabaletan garajea salgai Murubide plazan.** Tfnoa: 79 29 19.
- **Gutziz jantzita dagoen ileapaindegia salgai.** Tfnoa: 79 67 12.
- **Pisua osatzeko pertsona behar da Erguinen.** Tfnoa: 79 71 16.

Lana

- **Italianoko irakasle partikularra behar da.** Tfnoa: 79 21 72. Blanka.
- **Andrea prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 76 33 48.

- **Ingelesko klase partikularrak behar dira.** Tfnoa: 79 72 92.
- **Umeak zainduko nituzke.** Dei egin 79 60 16 tfnora.
- **OHoko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 60 16.
- **Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Kotxea beharrezkoa da. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 57 tfnora.
- **Furgonetadun mutila lan egiteko gertu.** Tfnoa: 77 04 87. Arrasaldetan.
- **Emakume euskalduna orduka etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 79 07 73.
- **OHoko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 71 05. Miren.
- **Bi neska gertu gaude etxeak, atarteak edo bulegoak garbitzeko.** Tfnoak: 79 82 18 Mari Jose edo 76 06 79 Maribi.
- **30 urteko emakumea etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edo edozein lan egiteko gertu.** Tfnoa: 77 06 92.
- **Alemanahutsetik hasita ikasi nahi nuke.** Norbait erakusteko prest balego, deitu dezala ilunkaratan 79 41 94 tfnora. Miriam.
- **Klase partikularrak ematen dira urte osoan.** Talde txikiak. Pertsonal espezializatua. Dei egin 5etatik 7etara 79 93 03 tfnora.
- **Andra bat behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko.** Dei egin 20.30etatik aurrera 79 15 19 tfnora.

Salerosketak

- **Spectrum ordenadorea eta 19 joku salgai** 24.000 PTAtan. tfnoa: 79 93 91.
- **Irrati-kaseta salgai.** Neurriak 20 X 55 zm. 60 w, zinta batentzat, 7 kanal. 5.000 PTA. Dei egin 79 91 50. Jon.
- **Corsa Swing 1.4. SS-AL salgai.** 9 hilabete ditu eta 7.000 Km bakarrik. Oso oso ondo dago. Tfnoa: (945) 22 69 26.
- **Amtrad PC 1.512 markako ordenadorea salgai** 40.000 PTAtan. Ezaugarriak: 8086 mikroa, CGA tarjeta, zuri-beltzeko monitorea, bi disketera, 512 K-ko memoria. Tfnoa: 79 58 82.
- **Salgai:** karameluentzako 10 pote handi, izozkien-tzako kamara eta estreinatuta barik dagoen labe bat (Salvat markakoa). Tfnoak: 77 00 91 eta 79 23 58.

Denetarik

- **Urrezko gemeloa galdu nuen** kalean hilean 11n. Topatu baduzu dei egin mesedez 79 21 03 tfnora. Saria izango duzu.
- **Autobus geltokiaren ondoan umeen txamarra bat aurkitu dugu.** Tfnoa: 77 11 68. Karmen.
- **Urrezko koilarra galdu nuen Kanposantutik Abaroarako bidean.** Topatu baduzu mesedez dei egin 79 44 51 tfnora.

Aste Gazte

Bekak

• EHAeko administrazio publikoen hizkuntza-normalkuntzari buruzko ikerketa bekak. Dirulaguntza: 1.350.000 PTA. Eskatzaileak: 1988tik aurrera lizentziaturiko EGAdunak. Epea: azaroak 18.

Ikastaroak

• Argazkigintza Ikastaroa, sakontze-maila. Euskaraz. Azaroaren 16tik abenduaren 17ra, astelehen eta ostegunetan, arratsaldeko

7etatik 9etara. Matrikula: 1.000PTA. Plaza mugatuak.

Ihardunaldiak

• Udako Euskal Unibertsitatearen III. Arrasateko Ihardunaldiak: azaroak 19, 17 eta abenduak 1, 10. Gaiak: euskarazko herri-prentsa, EHko azpiegitura meteorologikoa, Arrasateko toponimia eta Pirinioetako hartza.

Mediateka

• Arrasateko Ahizke-CIM zentroak mediateka-

zerbitzua eskaintzen die norbere kabuz ingelesa, alemanera nahiz frantsesa ikasi nahi duten guztiei. Astelehenetik ostiralera (asteazkenetan ezik), arratsaldeko 5etatik 7etara. Kuota: urteko 2.000 PTA.

Lehiaketak

• X. "Tene Mujika" Narrazio Motzeko Literatur Saria. Gai libre, 6-30 orrialde bitarteko lanak. 125.000 eta 20.000 PTA bitarteko 5 sari. Epea: azaroak 27.

"Adin ezberdinetako pertsonen arteko harremanetan ere azaldu daiteke solidaritatea, batez ere, adineko jendea eta belaunaldi gazteenen arteko harremanetan"

"PANORAMA"

ALDIZKARIKO EDITORIALA.

Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Z E R N A H I A G O ?

Espe Zubizarreta

Amaia Loradendakoa

- Erregalaoan hartzeko, lora sorta ala landarea? Neuretzat, sorta.
- Lorak zaintzeko trukoren bat? Ez, lekua ondo aukeratuz gero, inork ere ez du esku txarrik.
- Ongarria zenbatean behin? Udaberri hasieran eta udan, negua ondo pasatzeko.
- Usairik onena duen lorea? Larrosa.
- Norentzat prestatu duzu sortarik politena? Domusantutan sentimentu handiz eskatzen duenarentzat. Norberaren umoreak ere eragin handia du.
- Esan egia, ondo iruditzen zaizu Domusantutakoa? Montaje bat da, baina urtero harrituta geratzen naiz batzuk horretan jartzen duten maitasunarekin. Dakarten ideia betetzea da inportanteena.
- Zein urte sasoiatan izaten dira lorarik politenak? Udaberrian mendiko lorak dira politenak, eta nik beti ekartzen ditut, baina han bertan egoten dira politen.
- Ezagutzen duzu loreen hizkuntza? Loreekin sorpresa asko hartzen da. Maranta adibidez, norbera gustora ez badago giroa ona ez bada, ximeldu egiten da.
- Gauza bakoitza adierazteko, zer erabiliko zenuke? Maitasuna, zorionak, pozik zaudela adierazteko, larrosak.
- Arrasateko jardinak eta berdeguneak? Gutxi daudela.
- Lau lore mota sorta bat egiteko? Liliuma, irisa, gerbera eta liatrixa.
- Dekorazioa gustatzen zaizu? Askok, loreekin eta lora barik; lan polita da, dena dela.
- Zer irakurtzen duzu? Ez daukat astirik, baina egunkaria eta ARRASATE PRESS.
- Nora egingo zenuke eskursioa? Pirineotara berriro.
- Zaletasun bat? Mendia. Orain nire egarri bakarra horretarako astia hartzea.
- Janari gustoko bat? Garai honetan, gaztaina erreak, taloa eta antzekoak, euren giroan.



BERTSOAK

Urkuluko urtegia gainez


1

Garai batean izaten gendun herrian hainbat protesta, urtegi on bat noiz eraikiko Udaletxeari galdezka; aurten neguan sartu baino lehen Urkulu dugu gainezka, kukua berriz etorri arte ur gehiagorik ez eska.

2

Eguneroko bainu eder bat hartzeko bada gogorik, beldurrik gabe egon zindezke dutxan ordu bat osorik; bestalde aurten nahiz Errioxan ez izan mahats askorik, ura gainezka degun artean ez da faltako ardorik.

PATXI GOIKOLEA



FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEAZUBIZARRETA
TAILERRAKGipuzkoa Etorbidea, 22.
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65URRATS
AHOLKULARITZAGARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 71
ARRASATEARRASATE PRESS
HARPIDETZAK

77 05 65

● *Mikel Irizar*

Komunikabideak sendotzea lortu du ARKOk

ARRASATE PRESS eta ATBren sorreratik inguruan eta kolaboratzaileen artean. Orain urtebete, AEDren barruan sortutako bi komunikabide horiek gestioatuko zituen elkarteak sortu zen, ARKO, Arrasate Komunikabideak bertako lehendakari dugu Mikel. ARKOn urtebetetzean, balantze txikia egiteko ordua.

—Balantzea hitz gutxitan egitekotan?

—Alde batetik, gure produktuek tarte honetan izan duten hobekuntza aipatuko nuke, lehenik ATBren programazioa hobetu eta finkatzea, eta orain ARRASATE PRESSen birmoldaketa, berrikuntzak, horretan langileek egin duten ahalegina. Beste alde batetik, gestioan egon den profesionalizatzea azpimarratuko nuke, produktuak bakarrik ez, gestioa ere profesionalen eskuetan dago eta irizpide enpresarialagoekin funtzionatzea ekarri du horrek. AEDren barruan egoitea utzi eta gorputz hartzeak gestio aldetik gauzak hobeto egin ahal izatea ekarri du,


bai AEDrentzat eta baita guretzat ere, bakoitza espezializatu egin baita, bata komunikabidetan eta bestea euskalgitzaren forma guztietan. Guzti horrekin egoera ere sendotu egin da produktuekin batera, eta urtebetere bueltan, ARKO sendo dago eta gauzak gero eta hobeto egingo dira.

—Eta tresneria eta inbertsio aldetik?

—Momentu honetan, inbertsioak egin beharrean aurkitzen gara, ATBn batez ere, teknologikoki berri eta hobetu beharra ezinbestekoa dugulako. Hasieran, orain hiru urte, inbertsioak oso osorik Udalak egin zituen; baina orain beste sendotasun bat daukagu, eta inbertsioak Udalarekin erdibana egiteko moduan gaudela esan dezakegu.

—Dirulaguntzarena nola dago orain?

—ARKO sortzeak, alde horretatik, laguntza sistematizatzea ere ekarri du. Udalarekin hitzarmena egin zen eta aurrekontuak egiterakoan ere badago diruiturri bat ondo zehaztu daitekeena. Udalaren laguntza oso inportantea da guretzat eta



oso konforme gaude alde horretatik. Beste alde batetik, ARKO sortzearekin beste produktu batzuen sorrera ere ekarri du eta beste erakunde batzuetatik ere laguntza, Jaurlaritza eta Diputazioa adibidez.

—Eskuarteko helburuak?

—ATBn kalitatea hobetzea, finantziabideak finkatzea, Udalarekiko hitzarmenari sendotasuna ematea. Gero kanpora begira egiten ari garen lana ere ezin da ahaztu, neurri handi baten eredu bihurtu gara eta. Herri.KO berripapera elementu inportatea da herri komunikabideek elkarren berri izan eta bakoitzat bere zulotik irteko. Gure aintzindaritasunak, bestalde, horrelako proiektuak posible direla, euskara hutsez egitea posible dela

erakusten du. Helburu sozial eta periodistikoekin egiten bada sekulako harrera ona duela jendearen aldetik, jendeak behar handia duela herri komunikabideena eta hor potentzial handia dagoela.

Eskuartean ditugunen artean, bestalde, irratia ere hor dago. Proiektua prestatzen ari gara posible denean aurrera eramateko.

—Harrera aipatu duzu. Nolakoa da jendearen aldetik?

—Aldizkariak 5.000 ale banatan baditu Arrasaten, erabiltzen diren batzbestekoak erabiliz, 18.000 inguru dira gure irakurleak, eta gure herrian ez dago inondik ere hainbeste euskaldun, beraz hizkuntzaren mugak apurtu egin ditugu. ATBekin beste hainbeste, herritarren %97an beharrezko jotzen du.

ARKOn inguruan ehun pertsona inguru ari gara lanean, bakoitza bere neurrian, inguru aktibo eta potentea eratuz.

● **“ATB eta ARRASATE PRESSekin apurtu egin dugu hizkuntzaren muga”**

ASTRONOMIA

28 EGUN

Askotan, ohiturek bulztatuak, ez gara konturatzen egunero egiten ditugun ekintza gehienek, (denak ez dut uste) gure Lurretik kanpo dauden astroen eragina izaten dutela. Hala nola, urtaruak, gauzez lo egin eta egunez lana (gautxoriak izan ezik) etabar luze bat.

Azken batean, egun bat, Lurrak bere ardatzarekiko bira oso bat burutzeko behar duen denbora da. Era berean urte bat eguzkiaren inguruan bira osoa bukatzeko behar duena da.

Dakizueenez, denbora neurtzeko, ilargiak ilargialdi bat osatzeko behar duen denbora oso erabilia izaz zen zenbait zibilizazioetan; 28 egun inguru. Far West pelikulan, askotan daukagu ikusita larrugorriek ilargialdiak erabiltzen zituztela ere.

Matusalen famatuak, 900 urte baino gehiago iraun zuela esaten ziguten, baina ziur asko 900 ilargialdi ziren, hau da, 70 eguzki urte gutxi gorabehera.

Azken batean, urteko ilabeteek 28 egun inguru irauten dute, eta erromatarrek beren egutegia asmatu zutenean, ilabeteen iraupe nerako, ilargialdibete bat hartu zuten.

ERNEST BORN



Katalogoan agertzen den argazki muntaia



Kaleratu da II. Arte Hamabostaldiko katalogoa


Gaur arratsaldeko 7.30etatik aurrera, Harresi Aretoan eta Angel Galipienzo madrildararren pintura-erakusketaren klausura-ekitaldiarekin batera, II. Arte Hamabostaldian egon ziren artistek egindako katalogoa aurkeztuko da.

II. Arte Hamabostaldia, duela bi urte burutu zen eta bertan bederatzi artistak hartu zuten parte: Jose Boga pintore madrildarrak, Ana Laura Alaez bilbotarrak material plastiko eta sintetiko baliatuta eskulturak eginez, obra grafikoak landuz duen Daniel Laskurain Bergararra, Xabin Egañak fotokopiak arte-lan bihurtu dituen oñatiarrak, Txuspo Poyo pintore altsasuarra, Paisley eta Helen musikari kanadiarrak, Luis Larios argazkilaria madrildarrak eta azkenik, Angel Galipienzo, pintore naparrak.

Gaur aurkeztuko den katalogoa aipatutako bederatzi artisten artean egin dute, bakoitzak bina orri, diseinu eta estilo propioz; beraz, sorpresaz-sorpresa orri batetik bestera.

II. Arte Hamabostaldiko katalogoa herriko liburutendetan jarriko da salgai, I. Arte Hamabostaldiko katalo-

goarekin batera eta 2.000 PTaren truke. Orain hiru urte burututako Lehen Arte Hamabostaldian herriko artistek hartu zuten parte, eta haren oroimenez ere, liburuska in-



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral

5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

IZAGIRRE

barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

· ESAERA ZAHARRA ·


*“Eguzkia nora,
keriza bere ondora”*

· JEROGLIFIKOA ·



Hamasei

· GURUTZEGRAMA ·



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Ezinegon. 8. Galegoen aberriaren izeneko kalea. 9. Onets. 11. Ordainduz. 14. (Ald.) Bizkaiko ibilgailuetan. 15. Bitarte. 16. Kataluniako. 18. Jatorri atzizkia. 19. (Ald.) birbegiratu.

Bertikalak 1. Moldatu. 2. Aizto. 3. (Ald.) opil mehe eta borobila. 4. (Ald.) txori kantari. 5. Ukatzeko. 6. Zimurrez bete. 7. Kasik 10. Luki. 12. Eta. 13. (Ald.) Katu hitz elkartuetan. 17. (Ald.) Ez eme.

· HOROSKOPOA ·

Aries Negu gogorra dator eta txamarra berria erosi beharko duzu.

Taurus Hau zure astea da. Ongi aprobetxatu!

Gemini Ez zara osasunez ongi ibiliko. Utz iezaiozu erretzeari!

Cancer Udaberriari arrosa egon ohi den baino dotoreago zaude. Aprobetxatu!

Leo Aberats bihurtzeko aukera ezinhobea duzu. Joka ezazu lotoan!

Virgo Hobe duzu ikastolara gehiago gona motzekin ez joatea. Mutilak galtzerdietako karretetan fijaszen dira.

Libra Olentzero portatuko da. Hasi erregali on bat prestatzen.


Scorpio Ongi portatu ikastolan. “Minus-ak” pilatzen ari zaizkizu.

Sagitarium Alperrik zabilta irakasleari “pelota” sartzen.

Capricorn Gaur afaria prestatzea zuri dagokizu. Kontuz! Sukaldea erre gabe!

Aquarius Ahotik darizun hatsarekin neska guztiak urrutiratzen dituzu.

Piscis Gezurra dirudien arren, sekula baino zoragarriago zaude.



ARGAZKIGINTZA IKASTAROA

(SAKONTZE MAILA)


- Iraupena: **Azaroaren 16tik abenduaren 17ra.**
- Egunak: **Astelehen eta ostegunetan.**
- Orduategia: **7etatik 9etara.**
- Matrikula: **1.000 PTA**

PLAZA MUGATUAK!

Informazio gehiagorako: **Gazte Zerbitzua: 77 00 65**



• IÑAKI KORTAREN GOMENDIOA •




Iñaki Korta pilotaria musikazalea du. Ia denetik entzuten du, baina heavy-rocka du gustokoan, eta era horretako musika gomendatzera datorri-
gu gaurkoan. **ACDC, Metallica eta antzeko taldeak gustatzen zaizkio eta datorren astean, azaroaren 13an, Metallica talde estatu batuarra lehen aldiz izango da Euskal Herrian, Donostiako Anoetan. "Ez da ohizko kontzertua. Lau bat urtean bazetozela, bazetozela entzuten geunden, eta oraingoa pasa eta gero, beste urte mordo bat pasatuko da berriz gure artean izan arte. Musikaz gain, ikuskizuna bera ere polita izango da, eta ni behintzat joatekotan nago".**

• PROGRAMAZIOA •



- 7 Larunbata**
4 Pareak Jokuan
4.30 ATBketan
- 8 Igandea**
7.45 Larrugorritan
8.15 Monterock
9 Mondragol
- 9 Astelehena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me.
6.30 Dokumentala.
8.8.30, 9 Berriak.
9.30 Mondra Sport.
10 Asteko zinea:
Azeri grisa.
- 10 Asteartea**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
6.30 Dokumentala
8.8.30, 9 Berriak.
9.30 Larrugorritan:
Sexu ezberdinketa.
10 Asteko zinea:
Azeri grisa.
- 11 Asteazkena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
6.30 Dokumentala
8.8.30, 9 Berriak.
9.30 Tertulixan.
10 Asteko zinea:
Azeri grisa.
- 12 Osteguna**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
6.30 Dokumentala
8.8.30, 9 Berriak.
9.30 ATBketan.
10 Asteko zinea:
Azeri grisa.
- 13 Ostirala**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
6.30 Dokumentala
8.8.30, 9 Berriak.
9.30 Monterrock.
10 Asteko zinea:
Azeri grisa.

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •


Lau bider lan.
JEROGILIFIKO
1a. 10. Azeti. 12. Ta. 13. Atak. 17. Ra.
3. Olat. 4. Niral. 5. Ez. 6. Zimurtu. 7.
Bertikalak 1. Egokitu. 2. Gantbet.
Tate. 16. Ter. 18. Tar. 19. Uiakuki.
zia. 9. Onar. 11. Kikatuaz. 14. 1b. 15.
Horizontalak 1. Egonezin. 8. Cali-
GURUTZEGRAMA

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

Erdiko kale. 79 19 37
ILEA
Ferrerias. 79 87 62

IBARRA
Garajea S.A.
EBRO NISSAN
Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

NAROKI
Urrezko bitxiak
NAROKI
Opariak, Jostailuak, Liburuak,
Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47



UEUren III. Arrasateko Ihardunaldiak

EGITARAUA

Azaroak 10, asteartea

AURKEZPENA: Kepa Altonaga, UEUko Zuzendaria.

■ EUSKARAZKO HERRI-PRENTSA EUSKAL HERRIAN

Hitzaldi hau, herri-prentsa prentsa handiaren perspektiban aztertuz hasiko da. Arrasaten bertan herri-prentsaren adierazpide izan daitezkeen zenbait adibide azalduko ditu. Euskarazko herri-prentsaren loratzea 1988tik aurrera, Arrasate Pressen sorrerarekin. Honen eragina herrian bertan eta Euskal Herrian. Gaztelaniazko herri-prentsa. Finantziabideak. Aldaketa garaia... eta kitto, Arko, Aretxagazeta, Karkara... Egitasmo berriak azaltzen bukatuko da.

Hizlaria: JOXE ARANZABAL

Berripaper argitaratzailea.

Azaroak 17, asteartea

■ EUSKAL HERRIKO AZPIEGITURA METERELOGIKOA

Metereologiaren historia labur eta txiki bat egingo da lehendabizi. Ondoren, Euskal Herriaren eta Espainiarren egoera aipatuko da bi zatitan banatuta: demokrazia arterainokoa eta demokrazioaz geroztikoa. Euskal Herriko behategi metereologikoen sarea eta iragarpenak nola egiten diren ere azalduz.

Hizlaria: PELLO ZABALA

Arantzazuko Zentru Metereologikoaren Arduraduna.

Abenduak 1, asteartea

■ ARRASATEKO TOPONIMIA (edo IZEN-IZANaren sintonia)

Hitzaldi honetan ARRASATEKO TOPONIMIA deituriko lana aurkeztuko da. Lan hori Arrasateko Udalak 1990eko udazkenean emandako beka baten ondorio da.

Hitzaldiaren hasieran toponimiaz eta honen balioaz zerbait esan ondoren, Arrasateko leku-izenen bilketalana nola egin den azalduko da: helburuak, metodologia, normalizazioa, arazoak, etab.

Hizlaria: JOSE LUIS ORMAETXEA

Euskal Filologiari lizentziatua. Gasteizko Irakaslego-Eskolako irakasle.

Abenduak 10, osteguna

■ PIRINIOETAKO HARTZA

Hartza dugu zalantzarik gabe, gure eskualdean bizi diren ugaztunen artean mito eta legenda gehien eragin dituen. Gure arbaso zaharrenetatik honantz, piztia sakratua izan da, eta makina bat errito eta sineskeria sortu da bere inguruan. Ba liteke guzti honen arrazoia, baso ilunen batean itxura sendo eta antropomorfiko samarra duen plantigrado bikain hau ikusteak derrigorrez sortzen duen zirrara — edo ikara — izatea. Bata dela zein bestea dela, hartzarekiko sentimendu bereziak bizirik dirau gure egunetan ere, eta indartu ere egin da agian, batik bat animalia desagertzeko arriskuan egonik bere inguruan sortzen den misterioa areagotu ere egin bide baita.

Hartza orain dela hamabi edo hamairu urte desagertu zen Euskal Herriko mendietatik, eta egun Nafarroa eta Zuberoaren arteko ekialdeko mugetan tarteka aleren bat edo beste agertzen bada ere, aurki erabat desagertuko dela zihurta genezake. Izan ere Pirinioetako hartzen populazioaren egoera kritikoa da egun: dozena bat inguru hartz bizi dira mendi-katea osoan; euren arteko isolamendua gero eta handiago da, eta ugaltzeko probabilitateak murriztuz doaz.

Hizlaria: JOSE RAMON AIHARTZA. Biologoa.

ARRASATEKO MONTERRON KULTUR ETXEAN

Arratsaldeko 6etan

ARRASATEKO UDALAREN LAGUNTZAZ